

2014ko Ekaina

K

Oñatiko Udala 240. zikloa

KONTZEJUPETIK

OÑATI 2014

XXVII. EMAKUMEEN BIRA



Munduko emakume txirrindulari onenak Oñatin bilduko dira

Emakumeen Birako bigarren etapa jokatu da ekainaren 13an

pinturas

MUÑOZ
margoak

MARGOAK, ATE METALIKOAK
eta ATE AUTOMATIKOAK

Olakua 7, behea
Tel.: 686 975 819
20560 Oñati

Jose de Azpiazu Musika Eskola

INFORMAZIO GEHIAGO

estete-heenetik osatzailea

18.00 - 20.00

dazkaritza@azpiazu-musika-eskola.com

- 4 urtetik aurrera hezikuntza musikala
- Kalitatezko musika heziketa
- Musika taldean egiteko aukera
- Kontzertuak, emanaldiak...




TXALOKA Ludoteka

IKASTURTE AMAIERAKO FESTA!!


Eguna: EKAINAREN 18a

Ordua: 17.00-20.00

Tokia: HERRIKO PLAZA




Jolasa baino gehiago!



UDAL BERRIAK

- 4** Gutunak
- 6** Tokiko Gobernuari Galdezka
- 7** Talde politikoen iritziak
- 8** Herritarren iritziak
- 10** Ramon Irizar kaleko plaza berritzeko proiektua onartu du Udalak
- 11** San Martingo Plan Partzialaren aldaketa onartu du udalbatzak
- 12** Usakoko bainu denboraldia ekainaren 14an hasiko da
- 13** Atez atekoaren lehen urtebetetzea ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte

GURE HERRIAN


- 16** Fan Hemendik Eguna ekainaren 14an
- 16** Jubilatuen Astea ekainaren 23tik 29ra
- 17** 1.300 oñatiarrek parte hartuko dute Gure Esku Dagoren giza katean
- 18** Uruguaiako Filtro ospitaleko sarraskia gogoratuko dute Oñatin
- 19** Pilotakadaz pilotakada sakabanaketaren aurka
- 20** Oñatiko Euskaria liburua argitaratu dute
- 24** Olabarrietan lurpeko pasabidea egiteko proiektua onartu du Udalak

KIROLAK

- 24** Emakumeen Birako etapa Oñatin
- 26** Udanako Igoera ekainaren 14an
- 27** Eskubaloian txapeldun
- 28** Lehen patin eguna ospatuko da Oñatin

KULTURA

- 29** Maider Arregik Gipuzkoako Bertso Eskoletako txapela jantzi du
- 31** Julian Sagasta organujolearen jaiotzaren mendeurrena gogoratuko dute
- 33** Joxan Iza margolanak Parisen
- 34** Korpus jaien inguruko ekitaldiak
- 36** Maria Luisa Maiztegiren omenezko pintura erakusketa kultur etxean
- 38** Antxiñako Fotografia



irritziak



2014 eta 2015 urteetan ezte bazkaria gurean egiten duen **Etxea-Handi** bikote guztien artean, **Kanariar Uhartetara joateko bi bidai** * zozketatuko ditugu.

* penitziatu

Informatu zaitez!!

www.etxeaundi.com

GUTUNAK

Gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorleraren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Urtebetera

Koldo Zumalde Barrena

Izan zen makina bat iritzi, kezka, zalantza... Gaur atzera begiratu eta zerbait esateko moduan gaude; hartutako bidetik, egindako ahaleginetik, ikusitako akatsetatik: eskarmentutik.

Oraindik gogoan dugu aurreko sistema; 365 egun, atzo goizeko kontuak. Urteak zeramatzen eredu hark, eta gure jokamoldea ere ez zihoan okerrera; samurregi, astiroegi agian.

Jauzi bat zen ezinbestekoa eta, horretarako, kontzientziak eta kuraikak elkar hartu zuten; borondateak ekinari zabaltu zion atea. Eta hasi egin ginen zaborrari beste era batera begiratzeko, hondakin bakoitzari

izena jartzen; gordinetik, arduratik, eredutik: atez atetik.

Arrastotan sartu nau sistema berriak, aitortu egiten dut. Hondar gutxiago sortzen dut, hobeto sailkatzen; eta gehien gozatzen nauen sentipena: zaborrarekin zeharo adiskidetu bizi naiz. Lurra eman, lurra itzuli.

Bai, ajeak ere agerian utzi ditu sistema berriak. 1) Nagusia, gurea, denon errazterako bertutea; deskuidu horiek begietatik sartzen dira eta aitzakiaren bat beti dugu: egunean baino egunean hobeto, hala ere. 2) Ez txikia, haizearena. Hemen haize egunak -ederki asko dakigu- sarri izaten dira urtean; beraz, benetan konpontzeko kontua, ontzien triskadantza gehiagorik izango ez bada.

Eta zenbait datu: garbigunea izugarri ezagun egin da, auzo konposterako itxaron zerrenda dago, birziklaia gora egin dugu oso.

Katea geroan, xedea zeroan, lorea ahoan: denon meritua.

Eskerrik asko guztiei

*Alain Arkauz eta Ekiñe Goenaga,
Antixena Gaztetxeko asanbladaren
izenean*

Jende askok egin dugu lan gaztetxean jaurten. Era askotara eta modu askotako ekintzetan: tabernan, garbitzen, kontzertuak antolatzen, hitzaldietan... Urte bizia izan du Antixenak. Hari, honi, zuri esker. Denon artean egin baitugu Oñatiko gaztetxea. Eskerrik asko gaztetxeko asanbladaren partez, bene benetan.

Udan merezitako geldialdixoa hartu eta gogoz nahi zaituztegu hurrengo irailean. Badakizue, edozertarako azaldu asanbladara eta denon artean jarraituko dugu etxe honetatik herria astintzen.

Bukatzeke, pentsatu dugu barran lana egin dugun guztiok bazkari bat merezi dugula. Irailako hasi gara prestatzen. Irailak 13 urteurrenean, badakizue, bazkarira gonbidatuta zaudete denak. Eta ez lotsatu, ondo irabazita dugu eta! Gaztetxea aurrera!

Oharra: Maiatza eta Ekainean asanbladak asteazkenetan 18retan izango dira.

... hemendik aurrera dena!

PNV, distortsioa eta intoxikazioa

*Ander Lizarralde eta Iulen
Romarate zabala*

Laster izango da urtebete Oñatin hondakinak biltzeko atez ateko sistema martxan jarri zenetik

Espero zen bezala oso epe laburrean

Oñatiko hondakinaren bilketa selektiboaren datuek nabarmenki gora egin dute, %26tik %80ra

Oso gogoan dugu PNV-k buzoneatu zuen panfletoko argazki lotsagarria

Eta gogoan ditugu behin eta berriz gizarteratu zituzten mezu alarmista eta katastrofikoak

PNV-k atez atekoa distorsionatu eta intoxikatu zuen

Sistema zikina zela, egundoko multak jarriko zirela, usain jasanezinak, intimitatearen galera izugarria...

Okerrena da oso ondo zekitelau haizetara zabaltzen ari ziren hark ez zuela inolako zerikusirik atez ateko sistemarekin

Urtebete ondoren, atez atekoaren eguneroko jardun praktikoak begibistan utzi du PNV-ren distorsioa eta intoxikazioa

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

OHAR ETA DEIALDIAK

► Euskaltegiko zozketan saritua

Herritarrak euskara ikastera animatzeko asmoz, ikasturte osoko matrikula baten zozketa egin dute udal euskaltegian bertako ikasleen artean. Matrikula bere poltsikotik ordaindu izana eta ikasturtean zehar %90eko asistentzia edukitzea ziren zozketan parte hartzeko baldintzak. Zozketa eginda, Daria Evangelina Salazar Campos ikasleari egokitu zaio saria, 225 eurokoa. Daria argentinarra da sortzez, baina badaramatza urtetxo batzuk Oñatin bizitzen. Aspalditik zeukuan euskara ikasteko gogoia, eta aurten hasi da euskaltegian, 1.go urratsean. Roberto Altuna euskaltegiko zuzendariaren eskutik jaso zuen saria.



► Kasablankako jaietako zenbaki sarituak

Giro ederrean ospatu dira aurten ere Kasablankako San Isidro jaia. Bertako zozketan sarituak ateratako zenbakiak hauek dira: 1. saria: 692 (ordezkoa 1406); 2. saria: 959 (ordezkoa 691); 3. saria: 312 (ordezkoa 1063). Eskerrik asko jaietan parte hartu eta jaia antolatzen lagundu duten guztiei.

► Haurren danborradako entsaio egunak

Urtero bezala, ekainarekin batera hasten dira San Migeletako haurren danborrada prestatzeko entsaioak. Ekainaren 3, 5, 10 eta 12an izango dira, Errekalden, Urgain eskolako sotoan (19:00-19:45)

► Gurutze Gorriaren loteria salgai

'EROS NAZAZU' lelopean Urrearen Loteriaren kanpainari ekin dio Gurutze Gorriak. Loteria honen bidez lortzen dituzten diru-sarrerak oso inportanteak dira Debagoieneko lantaldearentzat. Iaz batutako diruari esker, eskualdeko eskaera gehienei erantzutea lortu zuten; hala, galdutako sei pertsonen bilaketan parte hartu zuten, edota eguraldi txarragatik aktibatutako prebentzio taldeak lau aldiz zaindu zituen gure ibaiak. Gainera, diruaren zati bat krisiaren ondorioz behar bereziak dituzten familiei laguntzeko erabili zen.

Loteria erosteko eta laguntzeko modu asko daude; webgunean (www.cruzroja.es/sorteodeoro) eta hainbat dendatan (Eroski, Repsol, Once, Correos...) eros daiteke loteria. Baina inportantea da jakitea, Debagoieneko boluntarioei erositakoa eta hemengo denda txiki eta tabernetan jasotako diru guztia bertako bulegoan gelditzen dela. Horrela, Gurutze Gorriko bolondresak eskuldea garatzeko balio duten proiektuetan inbertitzeko aukera dute.

Boleto edo txartel bakoitzak 5€ balio du, eta uztailaren lehen astera arte erosi ahal izango dira. Zozketa uztailaren 17an egingo da eta zenbaki sarituak prentsan eta Gurutze Gorriaren webgunean emango dira jakitera. Zorte on, eta gogoratu, EZ DA URREARENGATIK!

ZATOZ

IKASTOLARA

Guraso eta tutoreen arteko bilerak

**Uztailaren 9an
0-1 urte**

**Uztailaren 10ean
2 urte**

**2014/2015
ikasturtea**

u z t a i l a						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			



Tokiko Gobernuari Galdezka / kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72



LUR JAUIZIAK ERREKAN

? Orain dela denbora bat, Aita Lizarralde kaletik igarotzen den Olara ibaian (San Martingo zubia eta Roke Azkune artean) ikaragarritzko lur jauziak egon dira ibaiaren ibilgua oztopatuz eta estutuz. Neguko egun euritsuetan arazo handi bat gerta daiteke bertan. Ba al du udalak horren berri? Hartu al du erabakiren bat lurjauzi horiek eten edo konpondu arazteko?

▶▶ Udalak hasieratik izan zuen gertakari horren berri eta lehen momentutik jarri zen URA agentziarekin harremanetan (ibaien kudeaketa eta segurtasunaz arduratzen den Jauriaritzaren menpeko organismo publikoa). Errekara lurrarekin batera zuhaitzak ere jauzi ziren. Agentzia honek urtarrean egin zituen zuhaitz garbiketa lanak (uholdeak sortzeko arriskutsuena) eta udarako utzi ditu lur eta mendi magala egonkortzeko lanak.

UDALTZAIN ZERBITZUA GABAZ

? Duela egun gutxi, gabaz etxera zihoan neska gazte batek lapurreta izan zuen. Gero eta beldur handiagoa dago neska gazteen eta hauen gurasoen artean. Udalak ba al du udaltzain zerbitzua gabaz jartzeko asmorik?

▶▶ Herri segurtasunaren inguruan azterketa eta diagnostiko bat egin dugu beste udal batzuen datuak alderatuz. Gaueko udaltzain zerbitzua jarri duten herrietako segurtasunak ez duela hobera egin eta herriko aurrekontua nabarmen igotzen dela atzeman daiteke azterketa horretan. Beraz, beste bide batzuk jorratzen eta neurriak hartzen ari gara, etorkizunean proposatutakoa baztertu gabe. Hemendik Gobernu Taldearen elkartasuna eraso jaso zuten gazteei.

AISIALDIKO BARATZA PUBLIKOETAN parte hartu nahi al duzu?

▶ Udalak baratza publikoak egokituko ditu herritarren eskura jartzeko. Zenbat herritar dauden interestuta jakin nahi du, baratza gunea egoki dimentsionatu ahal izateko



Oñatiko udalaren helburua da herritarrei euren elikagaiak herriko baratzetatik lortu eta autokontsumo osasuntsua aisialdiarekin uztartzeko aukera eskaintzea, baratza publikoen bitartez.

Hau kontuan izanik, Udalak aipatu baratzak ezartzeko lurren azterketa bat burutu du. Hainbat aukera aztertu ondoren, bi gune posible aurreikusten dira:

- MURGIA AUZOKO SAN MARTIN GUNEA
- TORREALDE INGURUA

Baratzeak publikoak izango dira, udalak emakidan eskainitakoak. Laburbilduz, ezaugarri hauek izango dituzte:

- 30m²tik hasi eta 90m² arteko lursailak
- Baratzezainen elkarte bat eratuko da
- Araudi bat jarraitu beharko da.
- Formazio saio bat emango da.
- Sarrerako kuota bat (50-70€) eta urteko kuota bat (70-90€) ordaindu beharko dira.
- Herriko talde edo elkarteak ere ortuen erabiltzaile izan ahalko dira.

Gunea egoki dimentsionatu ahal izateko, beharrezkoa dugu zenbat herritarrek parte hartuko luketen jakitea. Erabiltzaile izango direnek **Auzolanaren** bitartez baratzeen eraikuntzan parte hartu ahal izango dute udal langileekin batera.

Aisialdiko baratzeen proiektuan parte hartu nahi izanez gero, eskertuko genizuke **EKAINAREN 20a** baino lehen Oñatiko udalera honako informazioa helaraztea:

- Izen-abizenak
- NAN zenbakia
- Helbidea eta telefonoa
- Goian aipatutako bi guneetatik zein duzun nahiago.

Informazioa helarazteko bideak:

- Telefonoz: 943780411
- Udaletxeko harrera gunean.
- Emaillez: nekazaritza@oinati.net
- Udaletxeko harrera bulegoa (07:15-21:00)

oposiziotik



Lourdes Idoiaga -EAJ

GOBERNU ONA EREDU

Orain inoiz baino gehiago, herritarrak ez daude gustura hainbat erakunde publikok erakutsitako gobernatzeko modu eta ereduekin. Desengainu hau zentzuzkoa da gobernatzeko modu batzuk aztertzen baditugu, hala nola, gehiengo absolutua duten gobernuen edo alderdi bakarrek gobernuen kasuak.

Espainiar gobernu horren adibide argia da. Beren egitaraua, legeak, dekretuak eta murrizketak (LOMCE adibidez) inposatzen dituzte, gainerako alderdi politiko zein eragile sozialekin adostasunetara iristen saiatu gabe. Eta noski, herritarren eskaerei ere ez diete jaramonik egiten. Baina urrutira joan gabe, hemen ere antzeko praktikak eta jarrerak ikusi ahal izan dugu.

Bistakoa da, bestalde, gutxiengoa izanda edota alderdi desberdinez osatu eta eratutako gobernuen gobernatzea zailagoa eta konplexuagoa dela. Kasu horietan, gainera, gobernuak ekimen gabeziari lotutako kritikak jasotzen ditu maiz, baina, dudarik

EAJ-PNVren Gobernu Onaren proposamenak hainbat irizpide eta konpromiso jasotzen ditu: jokabide etikoa izatea, ez inposatzea, iritzi aniztasuna errespetatzea, herri partaidetza eraginkorra eta lidergo-partekatua bultzatzea, pertsona guztien ekitatea bermatzea, baliabideak zorrotzasunez kudeatzea, gardentasuna bermatzea eta antolakuntza eredu eraginkorra egituratzea


gabe, agintzeko modu hobea da, ezinezkoa delako zerbait inposatzea eta beharrezkoa aldiz, adostea, iritziak errespetatzea, garden izatea eta eraginkortasunez kudeatzea.

Aipatu egoeren aurrean, garai berriek gobernatzeko modu berriak behar dituzte, batez ere, erakunde publikoei dagokienean.

EAJ-PNVren Gobernu Onaren proposamenak hainbat irizpide eta konpromiso jasotzen ditu: jokabide etikoa izatea, ez inposatzea, iritzi aniztasuna errespetatzea, herri partaidetza eraginkorra eta lidergo-partekatua bultzatzea, pertsona guztien ekitatea bermatzea euren ideologia edozein delarik ere, egoera zailetan daudenekin sentikorrak eta malguagoak izatea, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak zorrotzasunez kudeatzea, gardentasuna bermatzea eta antolakuntza eredu eraginkorra egituratzea.

Hauek guztiak bete beharrekoak dira, zalantzarik gabe. Horregatik, gobernu batek baliabide publikoak eraginkortasunez, etikaz eta zerbitzu bokazioz kudeatuko dituzten politikariak behar ditu.

gobernutik



Iosu Lizarralde - Bildu

ALDAKETARAKO ZIRRIKITU BAT: MONETA LOKALA

Gaur egungo Gizartean ekimen berritzaileen premia agerikoa da. Izan ere, egungoa ez dirudi kapitalismoaren ohiko krisi horietakoa. Ahots desberdinek nabarmentzen dutenez finantza eta ekonomia krisia ez ezik, krisi-hari desberdinek zeharkatzen dute sistema kapitalistaren ibilbidea: egun krisi ekonomikoak, krisi ekologikoak, krisi energetikoak, krisi politikoak harilkaturik dihardutela dirudi.

Globalizazio neoliberalak joko arauak aspaldi eraldatu bazituen ere, ondorioak orain bizi ditugu era latzeanean gurean: langabezia, bizi-prekarietatearen hedapena, desberdintasun sozialen areagotzea, sare industrialaren higadura, tokiko merkataritzaren larritasunak dira, besteak beste, prozesu honek guztiak uzten dizkigun zauriak. Izan ere, globalizazioa kapital handien hedapenaren neurri egindako ekonomia eredu izanik, erraz desegiten baititu tokiko ekonomiaren ehundurak.

Komunitate-tresnak eratu beharko ditugu, ekonomiaren gainean herritarren eragiteko ahalmena areagotu dezagun, eta, bide batez, ekonomiaren zirkuitu lokalak berreraiki eta indartu

Adibide argia dugu EAJ-PP-PSE-ek Kutxekin egin nahi dutena. Herritik sortutakoa kapitalaren menpe utzi nahi dute, hots, Kutxabank-en kapital pribatuari sarrera eman eta herritarrek udalen eta bezero elkarten bitartez kutxetan dugun kontrol publikoa murriztu.

Testuinguru honetan, ekonomia baliabideak pertsonen eta komunitateen ongizatearen zerbitzura ezarriko dituen gizarte moldea berreraikitzea da egun dugun erroka handienetakoa. Zentzu honetan, krisi ekonomikoaren berehalako ondorioei erantzun ez ezik, ezinbestekoa dirudi garapen eredu humanoago, ekologiko eta sustraituago baterantz hurbilduko gaituzten trantsizio bideak arakatzeko.

Komunitate-tresnak eratu beharko ditugu bide hori jorratu ahal izateko, ekonomiaren gainean herritarren eragiteko ahalmena areagotu dezagun, eta, bide batez, ekonomiaren zirkuitu lokalak berreraiki eta indartu.

Bestelako ekonomia bat eraikitzen ari diren esperientziei begiratuz, sistema dominatzaile honetan zirrikitu batzuk aurki daitezkeela konturatu gara: bertoko moneta edo moneta soziala da bide honetan topatzen dugun egitasmo interesgarri bat. Hurrengo asteetan ekingo diogu udalarekin elkarlanean herritarrek osatutako mahai teknikoak eginiko proposamena gizarteratzeari. **Batu zaitezte!!**

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI
Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea:** publi@oinati.net



GURE (nire, bere, denon) ESKU DAGO

Egun hauetan aski entzuten den leloa aitzakiatzat harturik, askotan esan ohi den zerbait buruz komentariotxo bat egitera nator. Edozein arazoren aurrean, eremu subiranoaren mantra aipatzen da guztien konponbidea izango balitz bezala, eremu jakin batean planteatzeak arazoan irtenbidearen ateak ia automatikoki irekiko lituzkeen bezala, irtenbideak errazak izango balira. Baina gauzak ezin dira hain era ximplean planteatu, are gehiago arazoak gero eta konplexuagoak bihurtzen ari direnean.

Edozein gizartearen oraina eta etorkizuna beraien biztanleen esku dago, bakarka edota kolektiboki egiten dutenaren arabera. Eta zentzu horretan, ezinbestekoa da bakoitzaren erantzukizun pertsonalaren inguruko kultura sortzea, lantzea eta indartzea.

Baina horrekin ez da nahikoa, arazo gehienak erantzukizun kolektiboa eskatzen dute, guztion erantzukizuna. Arazo batzuk, kolektibo txikiaren barruan konpondu daitezke, esaterako



Luis Guridi



Edozein arazoren aurrean, eremu subiranoaren mantra aipatzen da guztien konponbidea izango balitz bezala,

bikotearen barruan, familia tartean edo koadrillan. Beste batzuk, auzo erabakiak edota herri mailakoak izango dira. Euskararen inguruko eztabaidak eremu nazional bat eskatuko dute, eta aldaketa klimatikoaz edota migrazioaz ari bagara, irtenbide globalak, mundu mailakoak izan beharko dira.

Beraz, ez dago eremu bat bakarra non gauza guztiak planteatu eta konpondu, arazo bakoitzak berea eskatuko du, egokiena izango dena. Eta horretarako elkartasuna eta lankidetzazabala eta sakona beharko da.


Zentzu zabal batean esanda, zorionez den dena dago bakoitzaren esku, guztion esku, arazo txikienetik gaur egun planeta osoa arriskuan jartzen duten arazoak konpontzeraino. Baina ez dezagun pentsa eremuak automatikoki konpontzen dituenik, zertxobait gehiago beharko da. Eta gainera, bai, nazioek erabakitzeke eskubidea dute.

NIRE ESKU ERE BADAGO

Aurreko igandean, "Gure esku dago"-k Urbian giza-katea antolatu zuen, ekainaren 8an egingo den giza-kate erraldoirako abiapuntu gisa. Ni ere bertan izan nintzen, mendizale amorratua ez naizen arren, nire eskuekin katea luzeago eginaz. Badakit behin Urbiara joateak ez nauela mendizale bihurtzen, baina bertan leku izan zuen giza-katean behin, soilik behin parte hartzeak, bai nau katearen zati betirako egiten.

Ezberdina baita mendiak eskaini ahal dizkizun sosegu eta goxotasunarekin gozatzea edo gu, euskaldunon komunitate berezi honen aurrerapausoendako aldarrikapena egitea. Norberaren identitatea garatuaz bat, identitate sena baita "Gure esku dago" bezalako ekintzetan parte-hartzeraz bultzatzen gaituena, eta aspaldi Sarrionandiak esan zuen bezala, "sustraiak han dituenak" beti iraungu du lurraren hazi izaten.

Eta mendiaren berdean ehundaka pertsonak



Amaia Aranzeta



Praxis berriekin, sozialki aktiboagoekin, elkarlanarekin, gauza ederrak lortu daitezke. Horregatik, 'Gure esku dago' bezalako ekimenak posible dira

eskua luzatu genion elkarri Euskal Herriaren erabakitzeke eskubidearen alde. Herri garenon artean, guri baitagokigu, gure herriarendako onuragarriak izango diren legeen ebazpena eta sozialki, komunitate batean integratuta aurkitzean, euskal komunitate osoaren lana izan behar da, gure komunitate txiki baina, bateratu honen alde egiteko konprometua.

Gizartean gauzak aldatzen ari dira. Europako hauteskundeetan ezkerrearen gorakada nabaria izan da. Praxis berriekin, sozialki aktiboagoekin, elkarlanarekin, gauza ederrak lortu daitezke; horregatik, elkarlana sustatuz, komunitatea indartuz eta gure identitate indibiduala mantenduz, "Gure esku dago" bezalako ekimenak posible direla ikus genitzake. Hau dela eta, ekainaren 8an, ni ere bertan izango naiz; guztion artean ernalduko baititugu, Euskal Herria milaka kolorez jantziko dituzten loreak.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

OPARITU EMOZIOAK

- Pixoihal tartak
- Gosariak obrez obrez
- Erakusketa (Kale Barria 30)

Tel.: 663 764 511

www.cesasyregalosadomicillo.com

HERRIA, ESTATUA ETA IN(TER)DEPENDENTZIA

Ikasle garaitik iruditu zaizkit iradokigarriak **Nietzscheren** ondorengo hitzak (**Zaratustraren** ahotik): “*Estatu deitzen zaio munstro hotz guztien artean hotzenari. Hoztasun osoz esaten du gezurra: Ni, Estatua, naiz herria. A zer gezurra! Oraindik herri bat dagoen tokian, han ez da estatua ulertzen, eta gorrotatu egiten da, begizko txar bat bezala ohitura eta eskubideen aurka*”. “...*estatuak mintzaira guztietan esaten du gezurra ongiatz eta gaizkiatz; hitz egiten duena gezurra da - eta daukana ere, lapurtu duelako du*” (‘Honela Mintzatu Zen Zaratustra’ liburua, ‘Jainkoizun Berriaz’ atala).

Maiatzaren 28an Arrasateko Kulturaren Anjel Rekalde, Floren Aoiz eta Txente Rekondok eskaini ziguten mahai-inguru interesgarriaren kariaz berriz etorri zitzaizkidan gogora. Herrien **burujabetasuna** aldeztzen dugunok, ez dakit ez ote dugun batzuetan lar fidatzen herriaren geroa estatu egitura bat izatera. Estatua, halaxe esanda, errealtatean existitzen ez den abstrakzioa da, estatu mota ezberdinak daudelako, eta estatu berberaren barruan estatu-aldi diferenteak ere topatuko ditugulako (unean-unean aginte ekonomiko-politikoa eskuratu dutenen interesen arabera); baina ez dezagun ahaztu, estatuek bere **statu quo-ko egiturak** sendotu eta erreproduzitzeko joera izaten dute, eta honek askotan talka egiten du Herria/herritarren



Juankar Olaeta



Estatuek bere statu quo-ko egiturak sendotu eta erreproduzitzeko joera izaten dute, eta honek askotan talka egiten du Herria/herritarren garapenarekin

hertsatzailea, are gutxiago gurtzeko sasi-jainkoa. Txerto gisa, gogoan Zaratustra.

garapenarekin. Okerra litzateke beste barik estatua eta herri-interes edota zerbitzu publikoa identifikatzea, estatu independente eratu ala ez, **herri-ekimenek eta gizarte-sare trinkoek** emango dizkiotelako Herriari bizi-arnasa, hauspoa eta etorkizuna. Gainera, bestalde, Estatuek ez dute egun garai bateko indarra (areago Europa barruan), eta indar finantzario eta espekulatzaileen aurrean ahalke, makur, edo okerragoa eta sarriagokoa dena, kolaboratzaile agertzen dira. Esan gabe doa ez naizela estatulista, egiturek ez dute berez ezer sortzen, bai askotan herri-garapena kamustu; baina ezin da ukatu unean-unean bitartekari egokiak izan daitezkeela, tresna. Honi dagokionez, Gotzon Garaterekin bat nator: une historiko honetan, beste hoberik asmatu bitartean behintzat, **Euskal Herriak**, biziko bada (zentzu zabalean ulertuta, anitza baina bide batez berezko dituen kultura, hizkuntza, izaera, nortasuna... garatuz), estatu-egitura **in(ter)dependentea** behar du, konplexurik gabe (Prozedurak, erritmoak, lurraldetasuna ...? Kulturateko mahai-inguruan). Erabakiko dugu burujabe zer estatu mota, izan bedi herrigintza eta pertsonen garapen osoa laguntzen dituen eta ez patrimonizatzaile, fiskalizatzaile eta



**ELKAR HEZI
HAUR ESKOLA**

**MATRIKULAZIOA
EKACHINEAN ZABALIK**

Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza :
Arantzazu kalea 18, tlf: 943 71 82 72
DBH eta Batxi: Santa Marina plaza 2, tlf: 943 78 28 70
Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko deitu 943 71 82 72 telefonora

www.elkarhezi.com

Ramon Irizarreko plaza berritzeko proiektua onartu du Udalak

Ramon Irizar kaleko parkea berritzeko proiektua onartu du Udalak. Bertako zorua egoera txarrean dago (gune batzuetan behera egin du) eta, beraz, zoladura altxatu behar dela kontuan hartuz, plaza bere osotasunean berritzea erabaki du Udalak, herri erdigunetik gertu dagoen espazio hau balioan jartzeko asmoz, gaur egun ez baitu jende askok erabiltzen.

Aukera ezberdinak aztertu ondoren, gaur egun parkearen erdian dagoen jolas-lekua kentzea erabaki da, "gune txikia delako, eta baldintzatu egiten duelako atsedengune zabal eta eroso bat sortzeko aukera" udal arduradunek azaldu dutenez.

Itziar Zelaia arkitektoak idatzi du parkea bir-diseinatze proiektua, eta ondoko argazkian ikusten den moduan plazaren erdian pasabide bat egokituko da, eta aldamenetan berdeguneak eta egonlekuak. Gainera, Atzeko Kalearekin bat egiten duen lekuan, egurrezko plataforma luze bat egokituko da (ikus goiko irudia); jarleku, jolasleku edo inprobisatutako eskenatoki bezala erabili ahal izango da plataforma hau.

Azken batean, Bidebarrieta eta herrigune historikoa lortuko dituen plaza atsegin eta eroso bat sortu nahi da. Zoruan, granitozko adakinak eta hormigoia konbinatuko dira, eta gaur egun parkean dauden zuhaitz handiak mantendu egingo dira. Parkearen perimetroan dagoen ormatxoa kendu egingo da.

EPEAK

Ekainean zehar jende-agirian egongo da proiektua udaletxeko Hirigintza sailean, inguruko bizilagunek edo edozein herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Ez dago erabakita oraindik noiz egingo diren berritze lanak. Proiektuaren arabera, bi hilabeteko epea beharko da. Udalaren asmoa da uda aurretik ekitea lanei, baldin eta San Migel jaietarako amaituta egongo dela bermatzen bada. Bestela, udazkenerako utziko dira. Orain Gipuzkoako Foru Aldundira igorri du proiektua udalak, monumentu-multzo bezala kalifikatuta dagoen herrigune historikoan egin beharreko esku-hartzea denez, hari baitagokio oniritzia ematea.

Ramon Irizarreko plaza berritzeko lanek 120.344 euroko (Bez gabe) aurrekontua dute.



Atzeko Kalearekin bat egiten duen gunean egurrezko plataforma zabal bat jarriko da, jarleku, jolasleku edo eskenatoki txiki bezala erabili ahal izango dena

► Herri erdiguneko parke hau balioan jarri nahi da, gaur egun jende gutxik erabiltzen baitu

► Gaur egungo jolasgunea kendu eta atsedenera zabal eta eroso egokituko da



Arantzazuko errepidea asfaltatzeko lanak egingo dira datozen asteetan

Aste honetan bertan hasi dira Arantzazuko errepideko zorua birgaitzeko lanak. Batez ere, igotzeko erraila dago egoera txarrean, eta konkretuki Oñati eta Arantzazu arteko errepideko 3. eta 8. kilometro puntuen artean berrituko da errepidea; hau da, Araotzerako bidegurutzetik aurrera, gutxi gora behera. Lehen hilabete honetan obra zibila egingo dute, hondatuta dagoen asfaltu geruza jaso eta zorua berdinduz, eta ondoren egingo dituzte asfaltatzeko lanak.

Campezo eta Asfaltiak enpresek osatutako UTEak egingi ditu lanak 568 mila euroko aurrekontuarekin. Lanek 11 aste iraungo dute eta, beraz, arretaz gidatzea eskatzen da.



Arantzazuko errepideko 3 eta 8. km. puntuen artean egingo dira berritze lanak. Hamaika aste iraungo dute



ACESMAren esker ona

Etorkien integrazioaren alde lanean diharduen ACESMA elkarteak omenalditxo eskaini zion alkateari eta udal gobernu talde osoari, esker ona adierazteko. Arlo sozialean udala egiten ari den lana eta erakusten duen konpromisoa, dedikazioa eta gertutasuna azpimarratu zuten. Mikel Biain alkateak berak ere goraipatu egin zuen ACESMA elkartea arlo ezberdinetan burutzen ari den lan bikaina, besteak beste elikagaien bankuarekin.

UDALAREN OHARRA

Udal zerga eta tasen erreziiboak SEPA formatora egokitu dira

Europar Batasuneko aurrezki kutxa eta banketxeetan indarrean den erreziibo formato berria da SEPA (Single Euro Payment Area). Beraz, ordainketak entitate finantzieroen bitartez helbideratuta dituzten erakundeek ere formato berri horretara egokitu behar izan dituzte agiriak. Tartean Udalek.

Differentzia nagusia da, SEPA formatoko agiritan 140 karaktere agertu daitezkeela gehienez. Beraz, erreziiboetako informazioa mugatu eta egokitu egin behar izan da. Hala, aurrerantzean kutxa edo banketxetik jasoko dugun ordainagiri-etan informazio hau agertuko da soilik: zerga mota, urtea, erreziibo zenbakia eta helbide tributarioa.

Hala ere, erreziiboen inguruko informazio gehiago nahi duenak <http://dokumentuak.gipuzkoa.net> atarian ikusi ahal izango du, erreziiboan agertzen den bankuko erreferentzia eta agiriaren kodea sartuta. Ordainagiriak inprimatu edo gordetzeko aukera dago bertan. Erreziiboak hiru hilabetez egongo dira ikusgai, eta bakarrik azken erreziiboak kontsultatu ahal izango da.

San Martingo Plan Partzialaren aldaketa onartu du udalbatzak

San Martin guneko promotoreekin sinatutako hitzarmenaren arabera, bertako Plan Partziala aldatzea onartu zuen udalbatzak maiatzeko osoko bilkuran. Aldaketa horri esker, San Martin gunean eraikitze faltan diren merkatu libreko 83 etxebizitzaren ordez, 132 eraiki ahal izango dituzte (49 gehiago), baina etxe txikiagoak izango dira, eta ez da aldatuko eraikigarritasun osoa (12.195m²).

Horren trukean, Udalak baldintza batzuk ezarri ditu eta, hala, eraikiko diren 132 etxebizitzek prezio mugatua (BOEx1,7) izango dute (220 mila euro inguru). Horrez gain, enpresa sustatzaileek konpromisoa hartu dute uztaileko prest utziko dutela 4-5-6-7-8 zenbakietako urbanizazioa eta A4 eraikineko fatxada urtebeteko epean amaitzea bermatzen duen abala ere aurkeztu dute. Gainera, urte honen amaierarako auto-karabanentzako aparkalekua amaituko dutela ziurtatu dute, besteak beste.

EAJk alegazioa aurkeztuko du

EAJren udal taldeak aurkako botoa eman zuen, eta Plan Partzialaren aldaketaren aurkako alegazioa aurkeztuko du, ez duelako legedia betetzen, jeltzaleen ustez. Legedia aplikatuz, San Martinen eraikiko diren 49 etxe gehiago horien %65 (32 etxebizitza) babes ofizialekoak izan beharko lirarteke EAJren ustez. Aldiz, gobernu taldeak dio, eraikigarritasun osoa aldatzen ez denez, ez duela etxebizitza babestuen estandar berririk eskatzen.

Ur kontsumoaren tarifyan ez da aldaketarik egingo

Urtarrileko osoko bilkuran ur kontsumoaren inguruko ordenantza berria onartu zuen udalbatzak, behin behineko izaeraz. Tarifak kalkulatzeko orduan, kontsumoaz gain etxebizitzaren erroldatutako bizilagun kopurua ere kontuan hartzea jasotzen zuen ordenantza berriak. EAJk aldaketaren aurka bozkatu zuen orduan. Helburuarekin (kontsumo arduratsua sustatzea) ados egonda ere, Oñatiko familiengan izango lukeen eragin konkretuari buruzko datuak falta zirelako. Gobernu taldeak ere aldaketa mahai gainean uztea erabaki du orain, aplikatu beharreko balizko hobari eta salbuespenak hobeto aztertzei asmoz, 2015era begira.

Hala ere, gaia sakonagoa dela esan zuen Mikel Biain alkateak maiatzeko plenoan. Ur zerbitzuaren eskumena S.A. baten esku utzteko EAJk 2008an hartutako erabakia oñatiarren kalterako izan dela esan zuen; "ordutik hona %64 garestitu da erreziibo eta, gainera, Ur Konsortzioak hitzemandako inbertsioak ez dira gauzatu". Lourdes Idoiak erantzun zuen, Gipuzkoako Urak enpresa foru aldundiak eta udalek osatutako konsortzioa dela, eta urte hauetan zehar hainbat inbertsio (ur biltetgiak, saenamendu sarea...). EAJ kideek pleno aretoa utzi zuten, errespetu falta leporatuz alkateari. Honek erantzun zuen, datuetan oinarritutako kritika politikoa baino ez zuela egingo.

EUROPAR HAUTESKUNDEAK

EH Bildu izan da nagusi Oñatin

Maiatzaren 25eko Europako Hauteskundeetan **EH Bildu** (%47,71) izan zen bozkatuena Oñatin, 1.981 botorekin, 2009an baino 603 gehiago. **EAJ** (%35,06) izan zen bigarren indarra 1.456 botorekin (+15). **Izquierda Unida-Ezker Batuak** ere gora egin du Oñatin 127 boto lortuz (+77). **PSOE**k eta **PP**k aldiz boto galera nabarmena izan dute; sozialistek 192 boto batu dituzte (-188) eta popularrek 132 (-62). Azpimarratzekoa azkenik, **Podemos** alderdi berriak lortutako emaitza, 87 bozkarekin.

Udaletxean ordezkaritza duten alderdiek balorazio positiboa egin dute. Mikel Biain alkateak esan du EH Bildu kontsolidatu egin dela Oñatin; "hiru urte daramagu gobernua, hainbat erabaki hartu ditugu, eta horrek desgastea eragin zezakeen, baina EAJrekiko aldea handitu dugu, eta horrek bultzada handia emango digu aurrera begira".

Lourdes Idoiak ere balorazio positiboa egin du. "Azaroko Autonomikoetan ikusi zen Bildurekiko aldea murriztu egin dela, eta guk ilusio handiz jarraituko dugu lanean, herritarrei entzun eta gure programa osatuz, datorren urteko hauteskundeetara begira".



Gidabaimena DOAN lortu dezakezu

Udal Euskara sailak animatu egin nahi ditu herritarrak gidabaimena euskaraz ateratzera. Helburu horrekin, urtero bezala, aurten ere **350€-ko saria** zozketatuko du urtean zehar azterketa teorikoa euskaraz egiten dutenen artean. Herriko bi auto-eskoletan dago gidabaimena euskaraz atera ahal izateko behar den materiala (liburuak eta testak).

Orain dela sei urte hasi zen Udala 'Gidabaimena euska-raz' kanpaina bultzatzen, mankomunitatearekin batera, eta orduz geroztik asko hazi da azterketa euskaraz egiten dutenen kopurua: 2009an 8 izan ziren (%10) eta iaz 33 (%64).

PIXOIHAL BERRERABILGARRIEN erabilera sustatuko du mankomunitateak

Ohiko pixoihalak erabili eta botatzeak duen kostu ekonomiko eta ekologikoa kontuan hartuz, pixoihal berrerabilgarriak sustatzeko kanpaina jarri du abian Debagoieneko mankomunitateak Foru Aldundiarekin elkarlanean. Hala, eskualdeko 50 familiari pixoihal berrerabilgarriak merkatuko prezioaren erdian eskainiko dizkie mankomunitateak pixoihal hauen abantailak frogatu ditzaten. Interesatuta dauden familiek **943793598** telefonora deituta eman dezakete izena.



ABANTAILA ASKO

Abantaila asko dituzte pixoihal berrerabilgarriak. Ekonomikoki, urtean 1.600-1.800 euro aurrezteko aukera ematen dute. Alde ekologikotik begiratuta, haur bakoitzarekin batzate beste 1,5 tn. zabor sortzen dira pixoihal komertzial botagarriekin. Pixoihal berrerabilgarriekin %20ra murriztuko genduke hondakin kopurua.

HITZALDI INFORMATIBOA

ekainak 12, osteguna kultur etxean, 18:00

USAKOKO BAINU GUNEA ekainaren 14an zabalduko da

► Irailaren 14ra arte sorosle zerbitzua egongo da egunero (15:00-20:00)

Ekainaren 14an zabalduko da ofizialki bainu denboraldia UsaKon. Egun horretan hasi eta irailaren 7ra arte sorosle zerbitzua egongo da bertan egunero (astelehenetik igandera) arratsaldeaz, 15:00etatik 20:00etara. Ekainaren 14a baino lehen Buceo Euskadi S.L. enpresako urpekariek Usakoko urputzuaren hondoa garbituko dute. Horrez gain, Udalak Usakoko gunea txukundu eta bertaraino iristeko bideak garbitu eta egokituko ditu. Gainera, bainu denboraldiak dirauen bitartean, egunero egingo da gunearen garbiketa, eta udaltzainek ere buelta bat egingo dute bertatik maiztasun jakin batekin, gunearen eta zerbitzuen erabilera zuzena bermatzeko.



UDALEKU IREKIAK 2014

Gurasoentzako informazio bilera ekainaren 19an

Aurten ere badatoz udako udaleku irekiak! 348 haur eta 46 hezitzaile izango gara Oñatiko kale eta bazterrak alaitzen.

Hurrekin lan egiteko metodologian aldaketa batzuk izango dira aurten-goan, hala nola, pixkanaka asanbladak egiten hasiko gara haurrei hitza emanez eta beraiek plangintzaren partaide bilakatuz.

Honen eta bestelakoen berri emateko, gogoratu ekainaren 19an gurasoen bilera izango dela, arratsaldeko 18.00etan gazte-leraz eta 19.00etan euskaraz. Bileron lekua ETEOk eraikin zaharra (San Lorentzon) izango da eta uztailaren zehar haurren begiraleak izango direnak ezagutzeko aukera egongo da. Guztiok zaudete gonbidatuta.

Udalerri Euskaldunen Eguna Tolosan, ekainaren 14an

'Altzotik eta eltzetik, euskaraz gara' lelopean, Tolosan ospatuko da ekainaren 14an Udalerri Euskaldunen Eguna. Euskararen geroan udalerri euskaldunek duten garrantzia azpimarratu, eta hauen arteko elkarlana sustatzea da jaiaren helburua. Egun beteko jaiak izango da, goizeko 11etan hasi eta gauerarte. Kalejirak, musika, haurrentzako puzgarriak, Irrien Lagunen ikuskizuna, herri bazkaria eta abar luzea egongo dira.

Oñatiko Udalak, UEMAko kide den neurrian, Tolosako jaiaren parte hartzeko gonbitea luzatzen die herritar guztiei.



Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

ATEZ ATEKO BULEGOAREN OHARRAK

HILDAKO ANIMALIAK EZIN DIRA BOTA landa eremuko miniguneetan

Ordenantzan araututa datorren moduan, Atez-ateko bilketatik kanpo gelditzen dira hildako animaliak. Etxeko animaliak al baitariarengana eraman behar dira edo, bestela, Gipuzkoako Aldundiak eskaintzen duen zerbitzua erabili. Ordenantzaren arabera, hilda dauden animaliak bide publikoan uztea arau hauste oso larria izango da.

Baserrian oiloak, konejuak, arkumeak... kontsumo propiorako hiltzen direnean, hauen LUMAK, LARRUAK, TRIPAK eta bestelako gorpuzkiak ERREFUSARA BOTA!

Konpost plantan ez dituzte onartzen bertako langileen osasunarentzat eduki dezakeen arriskua dela eta; beraz, ezin dira edukiontzi marroira bota.



**Etixerako hiltzen diren
oilo, koneju edo
arkumeen lumak,
larruak, tripak eta
bestelakoak
ERREFUSARA bota
behar dira**

Olakua, San Lorentzo eta Ugarkalderako informazio bulegoa

Atez-ateko zerbitzua kudeatzen duen bulegoak Kale Zaharrean du egoitza, baina Olakua, San Lorentzo eta Ugarkaldeko bizilagunei zerbitzua gerturatzeko asmoz, **ekainaren 2an** (astelehena) eta **18an** (asteazkena) Olakuako dorreko beheko solairuan jarriko dute bulegoa. Apurtutako ontziak aldatu edota poltsa konpostagarriak erosteko aukera egongo da bertan. Bi egun horietan Kale Zaharreko bulegoa arratsaldez itxita egongo da.



EKAINAK 18
10:00-13:00
16:00-19:00

ATEZ ATEKOAK URTEBETE OÑATIN

Udalak eta Zero Zabor taldeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte kontzientziazioa areagotzeko

Urtebete pasa da Oñatin hondakinen bilketa zein kudeaketa-eredua aldatu zenetik eta aurrera pausu garrantzitsua izan da, baina ez da hor bukatu zaborrarekin dugun arazoa. Aurrerantzean ere urrats berriak eman beharko dira eta gaiarekiko kontzientziazioan ere badugu zertan sakondu. Horregatik Oñati Zero Zabor taldeak eta udalaren artean ondorengo egitaraua prestatu dugu:

no+vello

LOANERE
GOZATU ILERIK
GABEN AZALAZ
GURE SUNSAFE
TEKNOLOGIAKE
ENKHE

**FOTODEPILAZIOA GAZTETZE-FOTOTERAPIA
AZALEKO GARBIKETAK OPARI TXARTELAK**

Olakua 1B, Bajua
943716713
oñati@nomavello.com
www.nomavello.es

EGITARAUA

● UZTAILAK 1, ASTEARTEA

Zine emanaldia: "Trashed: rodeados de residuos y basuras" pelikula eskainiko da. Zuzendaria: Jeremy Irons. kultur etxean, 19:00. Sarrera doan.



● UZTAILAK 2, ASTEAZKENA

Hitzaldia. Hizlariak Juan Carlos Alduntzin eta Iñaki Errazkin. kultur etxean, 19:00an.

● UZTAILAK 3, OSTEGUNA:

Kale animazioa, pailazoak eta haurrentzako birziklaiaren inguruko tailerrak, herriko plazan 17:30ean

● UZTAILAK 5, LARUNBATA:

Irteera Lapatxera (Azpeitia), konpostaje-planta ezagutzeko bisita-gidatua. Apuntatzeko udaleko ingurumen-zerbitzuekin harremanetan jarri telefonoz (943780411) edo posta elektronikoz (marrazola@oinati.net). Goizeko 9etan korreosen autobusa egongo da doan.

● UZTAILAK 6, IGANDEA:

Jaturabe inguruetan dagoen zabor-pilaketa zahar bat garbituko dugu auzolanean. Eguerdian bazkaria egingo da Araotzeko auzo-localean. Goizeko 9etan herriko plazan elkartuko gara.

ELTZIA: Herri sormenaren etxea

Sormena eta herrigintza batu eta landu nahi dituzten herritarren etxea da ELTZIA. **Herri-kulturgintza** bizitzeko modu berria: **autoeraketa, elkarlana eta onura soziala** ardatz dituena



ELTZIA egitasmoaz jakin beharrekoak

■ Zer da Eltzia?

ETEO zaharreko eraikinari zein erabilera eman erabakitzeko, Udalak abian jarritako partehartze prozesua da ELTZIA izenez ezagutzen duguna. Udalaren asmoa da, kultura eta herrigintza arloetan lan egiten duten herriko eragileak ETEOko eraikinean biltzea, eta guztien artean proiektu bat sortu eta garatzea.

■ Zein da helburua?

Helburua ez da ETEO zaharreko lokalen banaketa egitea, beste barik. Helburua da, autoeraketan eta lankidetzan oinarrituko den proiektu bat sortzea. Lan egiteko modu berri bat sustatzea, taldeen arteko elkarlana eta sinergiak bilatuko dituena, herrigintza, auzolana, parte-hartzea, kritikotasuna eta onura publikoa bezalako balioak izango dituena. Hau da, Oñatiko herriri ordain soziala ekarriko dion proiektua izango da, sorkuntza, herri-bizitza eta ekintzailetasuna sustatuz.

■ Zertan da prozesua?

Duela bederatzi hilabete jarri zen abian ELTZIA egitasmoa, horretarako Udalak kontratatu zuen 'Bagara' elkarteak koordinatuta. Hasteko, herriko talde, kolektibo eta sortzaileen egoeraren diagnostikoa egin zen, ELTZIA egitasmoan lekua izan dezaketen eragileak identifikatzeko. Ehunka lagun ari dira parte hartzen prozesuan, eta makina bat bilera egin dituzte ETEO zaharrari emango zaion erabilera eta izango duen

funtzionamendu eta kudeaketa eredua guztien artean adosteko. Prozesua nahikoa aurreratuta dago, eta uztaileko ELTZIA proiektuaren oinarriak finkatuta egotea espero da.

■ Inbertsioak eta finantziazioa

ETEO zaharreko sotoan rock eta bestelako musika taldeentzako lokalak egokituko dituzute. Horixe da, oraingoz, ikusten den inbertsio nagusia. Bertako taberna ere egokitu beharko da. Datorren urtera begira, lehen solairuko espazioak ere egokitu beharko dira, seguruenez, ELTZIA proiektuan adosten den espazio antolaketara egokitzeko.

Eguneroko jarduneko gastu aurruntei dagokienez, Udalak ura, argia eta berokuntza ordainduko ditu. Hortik gorako funtzionamendu gastuei aurre egiteko modua eltzekideen eta Udalaren artean adostu beharko dute, kudeaketa eredua zehaztean.

■ Epeak

Uztaileko ELTZIA proiektuaren oinarriak (espazioaren antolaketa eta funtzionamendu nahiz kudeaketa eredua) finkatuta egotea espero da. Uztailean bertan ate irekien jardunaldiak antolatzeko asmoa ere badago, ELTZIA proiektua aurkeztu eta dagoeneko bertan dauden taldeen lana erakusteko. Bestalde, datorren urteko uda parterako, ETEOko sotoan egokituko ditzen musika taldeentzako lokalak preste egotea aurreikusten da.





“ Talde guztiak
gune berean
egoteak elkarlanerako
aukerak zabalduko ditu

ETEO zaharreko
eraikina erabiltzen
hasita dauden
taldeetako batzuk.
Erabiltzaileen
Koordinazio Taldea
osatzen dute

Eltzia hasi da bizia hartzen

Herriko hamalau talde hasita daude bertan lanean

ELTZIA proiektua oraindik guztiz definitu gabe dagoen arren, herriko hamahiru talde eta kolektibo hasi dira, dagoeneko, ETEO zaharreko eraikina erabiltzen. Beraien lana garatzeko espazio baten beharra zuten taldeak dira gehienak eta, beraz, hitzarmena sinatu dute Udalarekin ETEOko zenbait lokal erabili ahal izateko probisionalki, ELTZIA proiektua diseinatu eta definitu bitartean.

Arlo eta izaera ezberdineko taldeak dira, baina oso begi onez ikusten dute denek ELTZIA egitasmoaren filosofia eta helburua. “Gure dinamika partikularretatik irten, beste talde batzuekin egon eta elkar ezagutzeko aukera ematen du denok espazio bera konpartitzeak, eta horrek elkarlanerako bideak zabaltu eta samurtzen ditu”. Konbentziturik daude proiektu berriak eta interesgarriak sortuko direla harreman horretatik. Dagoeneko egin dituzte auzolanean lokalak txukuntzeko hainbat lan, eta sormen proiektu batzuk elkarrekin egiten ere hasi dira Potx eta Motx, Bertso Eskola eta Ilunpetan taldeen artean, besteak beste.

Etorkinen integrazioaren alde lan egiten duen ACESMA taldekoak ere oso gustura daude ELTZIA proiektuan. Beraien jardunerako behar zuten lokal bat eskuratu dute eta, gainera, aukera eta abantaila asko ikusten dizkiote ELTZIARI. Oñatiko kultur eta herri-mugimendu gehienak bertan egonda, askoz errazagoa izango da integrazioa eta interakzioa oñatiarrekiko.

Oraingoz, esan bezala, beharrak eraginda hamahiru talde hasi dira ETEO zaharrean lanean, baina ELTZIA proiektuan beste hainbat talde eta kolektibok ere parte hartzen dute: rock taldeak, Ganbara, Batukada, Txirrinka, Oñatz... Hauek guztiek ere ETEO zaharrean izango dute berien egoitza, ELTZIA proiektua definitu eta lokalak egokitzen direnean.

ERABILTZAILEEN KOORDINAZIO TALDEA

- Ortuzabala Kontsumo Taldea
- Presoen eskubideen aldeko taldea
- Bertso Eskola
- Trikitxaranga
- Lizargarate trikitilariak
- ACESMA elkarteak
- Ilunpetan argazki taldea
- Potx eta Motx pailazoak
- Jabekuntza Eskola
- Zazpi Udaberri GKEa
- Oñatiko naturzaleak
- Txantxiki guraso taldea
- Lagun leku jubilatuen taldea
- Gurutze Gorria

‘LAGUN-LEKU’ erretiratuen elkarteak ekainaren 13an zabalduko du txokoa

Olakua eta San Lorentzoko hainbat erretiratut ‘Lagun-leku’ elkarteak sortu dute, eta ETEOko taberna izandako lokalean egokitu duten txokoa inauguratuko dute ekainaren 13an. Udalak lokala erabiltzeko eskubidea laga die, garbi utziz, hala ere, Eltzia egitasmoaren baitan definituko dela espazio honen konfigurazioa.

‘Lagun-leku’ elkarteak 50etik gora bazkide ditu jada, eta ilusio handiz ari dira txokoa prestatzen auzolanean. Ekintza asko antolatzeke gogoz daude; ez omen da egoteko lekua bakarrik izango. Gainera, garbi utzi nahi dute, auzoko erretiratuek gestionatuko badute ere, lokala irekia izango dela.

TXANTXIKI guraso taldeak ekainaren 21ean inauguratuko du bere lokala

San Lorentzo auzoko guraso gazteek osatu duten TXANTXIKI elkarteak da ELTZIA proiektura batu den azkenetakoa. “Haur txikiak dituzten gurasoen elkarte bat osatzeko asmoz, ELTZIA prozesuaren bilera batera joan ginen urtarilean, eta erraztasun guztiak eman zizkiguten, eta beraz, txoko bat egokitu dugu bertan” azaldu dute taldeko kideek. “Haurrek jolas egiteko txoko bat izango da, baina ez hori bakarrik; haur eta gurasoen arteko harremana eta interakzioa ere bultzatu nahi ditugu, eta hitzaldiak antolatzeke asmoa ere badugu”. Dagoeneko hamabost bat familia eta 30 bat erabiltzaile ditu TXANTXIKI txokoak, eta ekainaren 21ean aurkezpen festa bat egingo dute.

'FAN HEMENDIK' EGUNA - Ekainak 14

'FAN HEMENDIK' eguneko FLASHMOB-ean parte hartzeko deia egin dute

Ekainaren 14an, larunbata, ospatuko da aurtengo 'Fan Hemendik' eguna. Aurtengo, gainera, nobedade moduan, FLASHMOB-a egingo da kuartel aurrealdean (20:00), 'Egurra eta kitto' taldearen 'Errefusa' kantua oinarri hartuta. Bertan egingo den dantza edo koreografia ere pres dago jada ('http://youtu.be/jUp9o0J_3Ww' helbidean dago ikusgai). Ahalik eta jende gehien animatzea falta da orain. Horretarako, entsaio egunak antolatu dituzte gaztetxean: ekainaren 7an, larunbata (11:00) eta 12an, osteguna (19:30) dira hurrengoak.

BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI

'Fan Hemendik' eguneko bazkarirako txartelak Arrano, Boga eta Ongin daude salgai (ikasle eta langabetuek 6€; langileek 8€). Lehenbailehen erostea komeni da, egoki antolatu ahal izateko. Azken astean 2€ garestiago egongo dira tiketak.

Egun osoko jaia izango da. Egurdiko 12etan hasiko da Jolas-poteoarekin; bazkalondoan, 18:00etan, kontzertuak egongo dira herriko lau tabernetan: Ongi, Boga, Arrano eta Pub-ean. Arratsaldeko 19:30etan manifa egingo da, 20:00etan flashmob-a, eta ondoren berriz ere kontzertuak eta festa txosna gunean (22:30).



http://youtu.be/jUp9o0J_3Ww
helbidean dago ikusgai
prestatzen ari diren flashmob-
eko koreografia

Oñatirako proiektua diseinatzeko bilera irekiak egingo ditu EAJk

Hainbat hitzaldi eta lan-bilera programatu ditu Oñatiko EAJk datozen hilabeteetarako. Oñatirako lantzen ari diren proiektua herriko eragileekin partekatu, aztertu eta denon artean osatzeko asmoz.

Maiatzaren 29an egin zuten aurreneko saioa, gizarte politiken ingurukoa, Lander Ugartemendia kooperantearen laguntzarekin. Ekainaren 18an Josu Erkorekaren bisita izango dute batzokian (19:00) egungo egoera politikoaz hitz egiteko.

Abendura bitartean, Egibar, Anasagasti edota Jon Redondo Jaurilaritzako kirol zuzendariaren bisita jasoko dute, besteak beste. 'Kirola eta euskal selekzioa', 'Estatus politiko berria', 'Bakea eta bizikidetzatza' edota 'Monarkia eta errepublika' bezalako gaiak jorratuko dituzte.

Lourdes Idoiagak adierazi du pertsonak direla EAJren proiektuaren ardatz eta oinarri, eta oñatiarren bizi-kalitatea hobetzea eta suspertze ekonomikoa izango direla EAJren proiektuaren helburuak.



Ekainaren 18an Josu Erkorekak hitz egingo du batzokian (19:00) egungo egoera politikoaz

'TRAUTI-HESIRIK GABE' eguna ekainaren 28an

Herrian dauden oztopo arkitektonikoak ezabatu eta problematika honen inguruko gizarte-kontzientziarazioa lantzen duen 'TRAUTI-HESIRIK GABE' elkarteak urteko jaialdia ospatuko du ekainaren 28an, goiz osoan zehar, foru enparantzaren Gurpil-aukien erakusketa eta txakur-terapia erakustaldia egongo dira. Luntxa ere egongo da bertaratzen diren guztientzat, eta TRAUTI elkarteak bazkide egiteko aukera ere bai, 5€ko kuota sinbolikoa ordainduta.

Bretoieraren aldeko KORRIKA

Bretainiako REDADGE ekimenean parte hartzen izan dira Txantxiku ikastolako lau irakasle. Euskal Herriko KORRIKAren antzekoa da eta bi urtetik behin egiten da bretoieraren normalizazioa sustatzeko asmoz. Ikastolakoek harreman estua dute bertako Diwan lizeoarekin, eta laguntza eskaini nahi izan diete, ibilbideko bi kilometro bere gain hartuz.



JUBILATUEN ASTEA EKAINAK 23-29

EKAINAK 23, ASTELEHENA

Aloña Abesbatza eta Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Santa Ana aretoan (18:30).

EKAINAK 24, ASTEARTEA

Hitzaldia: 'Aspectos psicológicos del parkinson'. Hizlaria: Silvia Camio. Pake Lekun (17:30)

EKAINAK 25, ASTEAZKENA

San Martinera ibilaldia eta bertan hamarretakoa eta dantzaldia. Pake Leku (10:30). Arratsaldean zinea kultur etxean (17:30)

EKAINAK 26, OSTEGUNA

Bingo berezia opari zozketa-ekin. Pake Lekun (17:00)

EKAINAK 27, OSTIRALA

Txokolatada Pake Lekun (17:30). Ondoren kantaldia eta dantzaldia.

EKAINAK 29, IGANDEA

JUBILATUEN EGUNA Egurdiko 12etan meza San Migel parrokian. Ondoren, herriko nagusiei eskainitako omenaldia kiroldegian, musika banda eta dantzarekin. Bazkari herrikoia ondoren, opari zozketa, bertsoak eta dantzaldia.



GURE ESKU DAGO

1300 oñatiarrek parte hartuko dute ekainaren 8ko giza katean

‘Gure Esku Dago’ ekimenak deituta, Durango eta Iruña arteko giza katea egingo da erabakitze eskubidearen alde



Irtsi da eguna. Hainbat hilabetez mamitzen joan den ekimena domeka honetan (ekainak 8) burutuko da. Milaka eta milaka herritar eskutik helduta, Durango eta Iruña lotuko dituen giza kate erraldoia (123 km.) osatuko da, herri bat garela eta erabakitze eskubidea dugula aldarrikatzeko.

Oñatin ere ilusio handia piztu du ekimenak. Helburua 1.000 metro saltzea zen, baina aise gaingitu da langa hori eta, aldizkaria ixteko orduan 1.250 metro zeuden salduta gure herrian.

Eguerdiko 12:00etan hasiko da giza katea, baina azken orduko ustekaberik egon ez dadin, 10:30etarako lekuan bertan egotea komeni da. Oñatiri dagokion kilometroa 24.a da, Arrasateko Musakola auzoko gasolindegia eta Eroskiko biribilgunea artean.

Egun horretan lau autobus ibiliko dira joan-etorrian, goizeko 9:00etan hasi eta 10:35ak (azken irteera) artean. Ezinezkoa da denak aldi berean joatea Arrasatera; batzuek lehentxoago joan beharko dute eta gehitxoago itxoin beharko dute, baina lasai, itxaronaldia arintzeko animazioa egongo baita.

Garraio publikoak lehenatasuna izango du egun horretan. Beraz, antolakuntzak autobusa erabiltzeko gomendioa luzatzen du. Edo, bestela, oinez edo bizikletaz joatea. Autobuserako txartelak eskuratzeko azken eguna gaur da (ekainak 5), 19:00etatik 20:30etara, Santa Ana aretoko sarreran.

Giza kateak orduerdi iraungo du. Amaitutakoan, autobus zerbitzua egongo da Oñatira itzuli nahi dutenentzat, baina antolatzaileek dei egiten dute Bergaran izango den festara joateko. Hainbat ekitaldi egongo dira bertan, ume, gazte nahiz helduentzat: Irrien Lagunak, apar festa, ‘Herrixa Dantzan’ erromeria, eta ‘Emon’, ‘Gose’ eta ‘Esne Beltza’ taldeen kontzertuak, besteak beste. Catering zerbitzua ere egongo da, eta ogitartekoak edo etxetik eramandakoa jateko aukera ere egongo da.

Azkenik, antolatzaileek dei egiten diete metroa eskuratu duten herritarrei, ez hutsik egiteko, aurreikusi gabeko zuloa edo etena eragingo dutelako giza katean. Bestalde, gogoratu, oraindik metrorik eskuratu ez dutenek eguneak bertan ere izango dutela aukera metroa eskuratzeko ibilbidean bertan. Baina hobe aurrez egitea.

ekainaren 8ko aldarrikapena
HERRI BAT GARA. ERABAKITZEKO ESKUBIDEA DUGU.
HERRITARRON GARAIA DA

Giroten joateko, Oñatin grabatutako ‘Oñatiarren esku ere badago!’ bideoklipa ikus daiteke <http://vimeo.com/m/95529233> helbidean

Eguerdiko 12:00etan hasiko da giza katea, baina 10:30etarako lekuan egon behar da.

Oñatiarrok Arrasateko Musakola auzoko gasolindegia eta Eroskiko errotonda arteko kilometroa osatuko dugu

Egun horretan lau autobus ibiliko dira 09:00 eta 10:35 artean joan-etorrian. Gaur da txartelak hartzeko azken eguna, 19:00–20:30, Santa Ana aretoko sarreran.

Giza kateak orduerdi iraungo du. Ondoren, Bergaran egingo den egun osoko festara joateko deia lutzatzen du antolakuntzak

Uruguayko Filtro ospitaleko sarraskiaren 20. urteurrena gogoratuko dute Oñatin

Hiru euskal errefuxiaturen estradizioaren aurka bildutako milaka uruguaitarren aurka poliziak egindako erasoan bi gazte erail zituen.

Askapenak eta Oñatiko Euskal Memoria Taldeak antolatuta, Montevideoko (Uruguay) Filtro ospitalaren inguruan orain dela 20 urte gertatutako sarraskia gogoratuko da Oñatin datozen egunetan.

1994ko abuztuaren 24a zen. Uruguako poliziak modu basatian kargatu zuen Espainiara estraditatu behar zituzten hiru euskal errefuxiatuei elkatasuna adierazteara Filtro ospitalearen inguruetan bildutako milaka uruguaitarren aurka, bi gazte (Fernando Morroni eta Roberto Facal) erail eta ehunka zauritu (12 balaz) eraginez.

Jesus Mari Gotia 'Manueltxo' oñatiarra zen Filtro ospitalean zueden hiru euskal errefuxiatuetako bat, Mikel Ibañez eta Luis Mari Lizarraldeekin batera. Egunak zeramatzen gose eta egarri greban, estradizio aginduaren aurka borrokatzen. "Ezin sinisteko modukoa izan zen Uruguako herriak erakutsi zigun elkatasuna" adierazi digu Manueltxok; "nire bigarren herria izango da beti".

Euskal errefuxiatuak Uruguain

1980. hamarkadan iritsi ziren Uruguaira lehen euskal errefuxiatuak. Manueltxo bera 1991ko urte hasieran. Montevideoko hiriburuan bizi izan zen urte eta erdiz, 'Trainera' izeneko jatetxean lanean. Izen oneko jatetxea zen, eta politikari ugari joaten zen bertara, baita polizia-buruak, bankeroak, eta enbaxadetako jendea ere. "Bazekiten gu nor ginen, baina han erakusten geuen jarreraren arabera juzkatzen gintzuten, eta ez genuen inolakori arazorik" gogoratzen du Manueltxok.

Baina 1992ko martxotik aurrera aldatu egin ziren gauzak. Bidarten ETaren buruzagitza atxilotu ondoren, Madrilgo gobernua Uruguakoa estutzen hasi zen, ETaren faltsifikazio apratoa han zegoela esanez. "Azkenean, Uruguako gobernuak bere duintasuna saldu zuen, kooperazio ekonomikoaren trikumailuarekin engainatuta, eta euskal errefuxiatuak trukerako txanpon bihurtu ginen".

Urte hartako maiatzean 24 pertsona atxilotu zituzten, haietako 13 euskal errefuxiatuak. Handik hilabe batzuetara, sarekadan atxilotutako guztiak aske gelditu ziren, goian aipatutako Ibañez, Lizarralde eta 'Manueltxo' izan ezik.

Bienbitartean, Euskal Herria eta euskal herritarrekiko elkartasun mugimendu sendoa sortu zen Uruguako herritarren artean. Asilo politikoaren aldeko batzordea eratu zen 'Ser vasco no es delito' lelopean, eta berehala etorri ziren euskal errepresaliatuen aldeko atxikimenduak, maila politikoan zein instituzionalean, baita kalean



'Jesus Mari Gotia 'Manueltxo' oñatiarra izan zen Uruguaytik estraditatuak hiru errefuxiatuetako bat.

EGITARAUA

► EKAINAK 10, ASTEARTEA.

"EL FILTRO. Memorias de los refugiados vascos en Uruguay" liburua idatzi duen Jon Mintegiaga idazlearen hitzaldia. Kultur-Etxean 19,00etan.

► EKAINAK 13, OSTIRALA

Bertsu musikatuak Arranon, 22,00etan.

► EKAINAK 17, ASTEARTEA

"FILTRO. 15 urte. Maite zaituztegu – Pueblo vasco. Tú lucha es nuestra lucha" zine-foruma eta ondoren "Manueltxo" bere bizipenak mahai gaineratuko dizkigu, Kultur-Etxean 19,00etan.

► EKAINAK 20, OSTIRALA

Afari-merienda Gaztetxean, 21,00etan. Ondoren, "Manueltxo" rekin tertulixia. Izen-ematea Arrano edo Gaztetxean.

**ARANBURU
ALTZARIAK**
 Kale Zaharra, 21
 Kale Barria, 11
 Lizaur A., 7
 OÑATI
 Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAKOKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

distira
 estetika zentrua

■ Manikura eta Pedikurak
 ■ Solarluma
 ■ Gorputzeko Tratamenduak
 ■ Aurpegiko Tratamenduak
 ■ Depilazioa

San Lorenzo 4 beheka | Tel. 943 78 05 86 | 20560 OÑATI
 email/twitter: estetika.distira@gmail.com

bertain ere, mobilizazio ugari antolatuz.

Azkenean, Espainiaren etengabeko presioei men egin eta 1994ko udan Uruguaiako gobernuak argi berdea eman zion estradizioari. Hiru euskal errefuxiatuek 14 eguneko gose eta egarri greba egin zuten (aurretik 26 eguneko beste gose greba bat egin zuten), eta Filtroko ospitalera eraman zituzten, osasun egoera oso delikatuaren zeudelako. Uruguaitarren elkartasun adierazpenak areagotu egin ziren, greba orokorrak eta hainbat manifestazio eginez.

Azkenean, Espainiaratu egin zituzten abuztuaren 24an, baina, hala ere, Espainiako gobernuak porrot egin zuela uste du Manueltxok. "Espainiaren helburua zen errepresioa internazionalizatzea, eta atxiloteta masiboak egitea herri ezerdinetan. baina ez zuen lortu. Hura izan zen azkena. Gainera, Uruguaiako herriak, eta baita ingurukoek ere, Euskal Herriaren izaera eta historia ezagutu ahal izan zuten -gatazka politikoa, atxilotetak, torturak, kanporatzeak...-".

Uruguaiako herritar askoren memorian bizi-bizirik daude oraindik 1994ko gertakari haiek, eta urtero batzen dira milaka lagun, polizia operazio hatako buru zirenek duten inpunitatea salatzeke. Heriotza haien arduradunek kargu inportanteak dituzte gaur egun Uruguaiako polizia.



Manueltxo, Uruguaira egindako bisitaldietako batean, Filtroko sarraskian hildako Fernando Morroniren amarekin

PILOTAKADAZ PILOTAKADA, SAKABANAKETAREN AURKA

Euskal presoaren sakabanaketaren aurkako ekitaldia egingo da ekainaren 7an. Pilota partiduak, bertsoak, trikitilariak, txiste kontalariak, zozketak eta sorpresak egongo dira

25 urte bete dira, euskal preso politikoen aurkako sakabanaketa modu orokor, sistematiko eta kolektiboan indarrean jarri zenetik. 25 urte, presoak beraien familiengandik ehunka kilometrora aldentu zituztenetik, eskubide urraketa eta sufrimendu bikoitza eraginez, bai presoek eta baita hauen senide eta lagunei, ETXERAT-ek gogoratzen duenez. Urrundurik ez ezik, bakarturik, kolpaturik, gaixorik, osasun zerbitzu egoki gabe eta eskubiderik gabe dituzte.

Gaur egun preso dauden oñatiarrei dagokienez: Xabier Ugarte Oñatitik 400 km.-ra dago, Xabin Usandizaga 750 km.-ra, Alberto Plazaola 610 km.ra eta Joseba Arregi 800 km.-ra.

Datu orokorrak aztertuta berriz, gaur egun 4 euskal preso bakarrik daude Euskal Herriko hiru espetxeetan; 372 Espainiako 44 espetxetan sakabanatuta, 104 Frantziako 27 espetxetan, eta preso bana Ingalaterran, Portugalen eta Ipar Irlandan. Bestalde, 16 hildako izan dira sakabanaketaren ondorioz.

"Sakabanaketa erabaki politiko baten ondorioz sortu zen, helburu politiko batzuk lortzeko asmoz" giogoratzen du Etxeratek. "Eta egun, Espainia eta Frantziako gobernuak ez dute espetxe politika krudel hau indargabetezko asmorik erakutsi". Horregatik, Etxeratek dei egiten du politika honen aurkako herri-indarra sortzera. "Denon artean ito behar dugu sakabanaketa". Ildo horretan, dei egiten diete herritarrei, ekainaren 7ko 'Pilotakadaz pilotakada' ekimenean parte hartzera. Pilota partiduak, bertsolariak, trikitilariak, txiste kontalariak eta sorpresak egongo dira. Sarrera doan da. Amaieran, Olakuako jaietara joateko kalejira egingo da.




Eguraldi ona egiten badu, plazako frontoian egingo da, arratsaldeko 17:00etan; bestela, kiroldegiko pilotalekuan



'OÑATIKO EUSKERIA'

EZAGUTU, AZTARTU, EGIN



Joxean Izak egin du liburuaren azala

► Oñatiko berbeta hobeto ezagutu eta bere aberastasunaz jabetzeko liburuak idatzi dute herriko hiru euskaltzalek

► Hizkuntzaren transmisio egokia bermatu eta Oñatiko euskera bizitzako esparru guztietan, ahoz nahiz idatziz, erabiltzen laguntzeko tresna izan nahi du liburuak

► Ekainaren 19an aurkeztuko dute liburuak udaletxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:00etan. Musikak girotutako ekitaldia izango da.

Ekainaren 19an 'Oñatiko euskaria. Ezagutu, aztartu, egin' izeneko liburuak aurkeztuko da udaletxean. Aspaldi sortu zen, Udalaren ekimenez, halako liburu bat argitaratzeko asmoa. Orduz geroztik atal ezberdinak (Aditza, Idaztarauak...) argitaratu izan dira, eta orain, material hori guztia batu eta liburu formatoan argitaratu dute herriko hiru euskaltzalek, Udalaren eta Badihardugu elkartearen lankidetzari esker.

Hiru helburu nagusi ditu liburuak. Batetik, Oñatiko euskaraz berba egin eta, batez ere, idazterakoan izaten ditugun zalantzak argitzea. *Daixen* ala *deixen* esan behar al da? *Inbiu* ala *egin bihar dogu* idatzi behar dugu?; *amaren* ala *aman*?; *Asko gurotzut* ondo esanda al dago?... Edozein herritarri sortzen zaizkion zalantzak dira, eta hemendik aurrera izango dugu argitzeko modurik, liburu honi esker.

Bestalde, Oñatiko euskeraren transmisio egokia bermatzea da liburu honen bigarren helburua. Tamalez, Oñatiko hizkera garbi, jator eta aberatsaren lekuko ziren pertsona nagusi asko joan zaizkigu azken urteetan, eta sekulako etena gertatu da hizkuntzaren transmisioan. Gaur egungo belaunaldiak eredu edo erreferentzia garbirik gabe geratu gara, kanpoko eragin edo interferentzia askorekin (Batuarena, gatzelaniarena, ingelesarena...).

Eta hirugarren helburua, Oñatiko euskara maila formalera jasotzea da. Gure zaharrek ohoz eta familia edo lagun arteko harremanetan bakarrik erabiltzen zuten euskara. Beste eginkizun ofizialeko erderara jotzen zuten. Batua arrotz gertatzen zitzairen, eta Oñatiko euskarak etxerako bakarrik balio zien. Beraz, ez da garatu komunikazio premia guztiei erantzuteko moduko eredurik. Horrek guztiak ekarri du gure herriko euskara motelduz eta baldartuz joatea.

Beste modu batera esanda, hizkuntzaren transmisio egokia bermatu eta Oñatiko euskera bizitzako esparru guztietan (eskolan, lantokian, komunikabideetan, administrazioan...), ahoz nahiz idatziz, erabiltzen laguntzeko tresna izan nahi du liburuak.

URTE ASKOKO LANAREN FRUITUA

Orain dela hamabost bat urte Oñatiko Berba taldeak, Udalaren laguntzarekin, ekin zion herriko euskararen ezaugarriak aztertzeari. Aurretik oñatieraz eta Oñatiko euskarari buruz idatzi eta argitaratutako lanak aztertu zituzten eta, gainera, herriko berbeta ondo gordeta zuten hainbat herritar ere elkarriketatu zituzten. Bizpahiru urteren ondoren taldea desegin egin zen, eta egileok haren lanari jarraitu zioten, gaur arte.

Hiru atal nagusi ditu liburuak. Lehenengoan gramatika arloa landu dute (aditza, deklinabidea, sintaxia...). Atal teknikoa da hau, eskoletan lantzeko edota hizkuntzarekin lan egiten duten profesionalentzako batez ere. Bigarren zatian, Oñatiko euskeraren hiztegia, esaera zaharrak eta esapideak bildu dituzte. Edozein herritarrek ulertu ez ezik, gozatzeko moduko atala da hau. Bere herriko euskera osatu eta aberastu nahi duen herritar guztientzako gomendagarria. Azken atalean, Oñatiko euskeran idazteko arau edo argibideak daude, adibide praktiko askorekin.

DVD bat ere badu liburuak. Bertan, 'Ahotsak' proiekturako Oñatiko hainbat herritarri egindako elkarriketak ikus daitezke.

Hemen dugu, beraz, Oñatiko euskararen eskuliburuak, gure euskera hobeto ezagutu, bere baitan dituen aberastasunez jabetu, eta edozein lekutan erabiltzen lagunduko diguna.

■ KEPA ELORTZA, ROBERTO ALTUNA eta KOLDO ZUMALDE, liburuaren egileak



Oñatiko euskerak ahozkotik idatzizkora eman beharreko saltoa emateko behar duen oinarria izatea espero dugu liburua

Roberto Altuna eta Koldo Zumalde, euskaltegiko irakasleek, eta Kepa Elortza euskalzaleak idatzi dute **'Oñatiko Euskeria. Ezagutu, aztatu, egin'** izeneko liburua, Udalaren Euskara saila eta Badihardugu elkartearen laguntzarekin. Hamabost bat urtetan zehar egindako lanaren fruitua da. Gure herriko berbeta goratu, prestigiatu eta maila kolokialetik formalera jasotzeko asmoz egindako lana da. Gure euskera maite eta aberastu nahi duenak badu, beraz, zer eta non ikasia.

Zein helbururekin idatzi duzue liburua?

Oñatiko euskara goratu eta prestigiatzeko asmoz, bere baitan duen aberastasuna balioan jarri. Gure hizkera maila formal batera jasotzea da helburua; hau da, maila kolokialetik (etxeke edo lagun arteko harremanak) atera, eta gure eguneroko esparru guztietara (eskola, lantokia, komunikabideak, administrazioa...) eraman ahal izateko oinarri eta eredia eskaintzea.

Urte askotako lanaren emaitza da, ezta?

Bai, duela hamabost bat urte hasi ginen Oñatiko euskara aztertzen, Udalak emandako beka baten bitartez. Urte hauetan zehar material ugari

batu eta argitaratu izan dugu han-hemenka: *'Oñatiko Aditz Taulak'*, *'Oñatiko eran eskribituko argibidiak'*, *'Gure berbetia hobetu guran'* izeneko artikulua sorta zabala aldizkari honetan bertan...

Baina bazegoen material hori guztia batu eta liburu batean batzeko beharra eta eskaria. Eta, hala, Udal Euskara sailaren bitartez, iaz hitzarmena sinatu genuen Badihardugu elkartearekin guk geneukan material hori guztiorri forma emateko, eta haxe da emaitza.

Halako lanak teknikoegiak izateko arriskua egoten da. Nori zuzenduta dago liburu hau?

Lehenengo zatian gramatika landu dugu, eta atal hori

Oso-osorik Oñatiko euskaraz idatzi dugu liburua. Geure euskera gai teknikoak azaltzeko baliagarria dela erakutsi nahi izan dugu horrela

bai da teknikoa. Batez ere eskoletan erabiltzeko izango da, irakasle baten galbahetik pasa eta ariketa didaktiko batzuk prestatuta.

Bigarren atalean, Oñatiko hiztegia, esaera zaharrak eta esapideak bildu ditugu. Atal hori edozein herritarrek

ulertzeko modukoa da; ulertzeko ez ezik, gozatzeko ere bai, gure aurrekoek erabiltzen zituzten hitzak eta esapideak ikasiz.

Hirugarren atalean, Oñatiko euskaraz idatzeko arau edo gomendioak daude, adibide praktiko askorekin. Atal hori ere edozein herritarrentzat da lagungarria; mezuak, kintto-bazkarirako gonbidapenak, edo beste edozein ohar idazterakoan sortzen zaizkigun zalantzak argitzen lagunduko digu.

Azpimarratzekoa da, gainera, oso osorik Oñatiko euskaraz idatzita dagoela liburua.

Bai. Gramatikako azalpen guztiak, eta hiztegiaren atalekoak berdin, Oñatiko euskaraz idatzi nahi izan ditugu. Hori ez da sekula egin; batuan egin izan dira beti.

Geure apustua izan da. Eredu bat eman gura izan dugu, Oñatiko euskara gai teknikoak azaltzeko ere baliagarria dela erakusteko. Eta, bide batez, animatu egin nahi ditugu maisu-maistrak, kazetariak eta administrazioko langileak ere, bertako euskara erabiltzera eguneroko lanetan.

Oñatiko euskara maite duenak eta aberastu nahi duenak badauka zer eta non ikasia hemendik aurrera.

Bai. Ezin dugu esan liburuak gure berbeta behin betikoz eta erabat jorratuta uzten denik. Hiztegiaren atalak esaterako, liburu oso bat beharko luke berak bakarrik; aditzaren atala ere gehiago findu beharko da, seguruenez, eta testu-antologia bat ere falta da.


Baina, beno, amaiara eman behar zitzaion orain arteko lanari, eta uste dugu oinarri sendo bat dela geure berbeta zaindu, aberastu eta prestigiatzeko. Geu ere ez ginen hutsetik hasi lan honetan, eta ondoren etorriko direnek ere samurrago izango dute. ■

BIZIKLETAZALEEN ETA OINEZKOEN BIDE-SAREA GARATUZ

**Olabarrietan lurpeko
pasabidea eraikitzeko
proiektua onartu du Udalak**

Bizikletazaleen eta oinezkoen bide-sarea garatu eta erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko asmoz, Olabarrieta auzoan Legazpira doan GI-2360 errepidea lur-azpitik igarotzeko pasabidea eraikitzeko proiektua onartu du udalbatzak. Modu horretan, lotuta geratuko dira Murgia eta Olabarrietako ibilbideak, oinezko eta bizikletazaleentzako arrisku handiko puntu bat eliminatuz.

Olabarrieta auzoko 70 zenbakiaren aurrean (Aiastrui eta Covinor parean) egokituko da azpiko pasabidea. Olabarrietako aldean, lurpeko pasabidea auzoko bidearekin lotzeko lursail pribatuak okupatu beharko dira, goiko planoan ikusten den moduan. Hain zuzen ere, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren lursailak okupatzeko desjabetze-espedienteak hasia da onartu zuen udalbatzak maiatzeko osoko bilkuran. Sestra Ingenieritza enpresak idatzi du lurpeko pasabidea eraikitzeko proiektua; 241 mila (Bez barne) euroko aurrekontua du eta, ustekaberik ez bada, uztaila amaieran has litezke lanak.



**Olabarrietako 70
zenbakiaren aurrean
egingo da lurpeko
pasabidea, arrisku
handiko puntu beltza
eliminatu eta Murgia
eta Olabarrietako
ibilbideak lotuz**

< Munduan zehar >

Friburgo: bizikletaren paradisia

Pekin eta Friburgok hainbat gauza dituzte komunean. Bi hiriburu-eretan esaterako, bizikleten kopurua autoenarekin alderatuta, bikoitza da. Friburgo, Alemaniako hegoaldean kokatuta dago eta biztanle guztiak oso harro daude, estatuko hiriburu ekologikoa izendatu berri dutelako.

Autoa erabiltzen dutenentzat mezua oso garbia da: erdigunetik kanpo gelditu beharra dago. Hiriburuaren erdigunean oso aparkaleku gutxi daude. Bizikletak uzteko tokiak ordea, ugariak dira. Batez ere unibertsitate inguruetan.



Friburgoko parkeetan ere bizikletaren presentzia nabarmena da

ruetan. Friburgoko bidegorri sareak 400 kilometroko luzera dauka eta ikusgarria da puntu konkretu batzuetan elkartu daitezkeen bizikleta erabiltzaileen kopurua.

Horren adibide nagusia, zubi urdina delakoa du. Zubi honek, trenaren errailak zeharkatu eta unibertsitate-erako norabidea eskaintzen digu eta publikatu berri diren ikerketa batzuen arabera, 10.000 txirrindulari baino gehiagok zeharkatzen dute aipaturiko puntua.

Friburgok motordun ibilgailuen dentsitate maila txikiena duen hiriburu da. 423 ibilgailu, 1.000 biztanleko.



**ALTUBE
ZERRITZUAK**

Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa



MAPFRE

Tel.: 943 78 12 65
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 65

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: infocta@telefonos.es



Izena: Ainhoa Martin
Ogibidea: Langilea

Zer da bizikleta zuretzat?

Duela gutxira arte zaletasun bat zen; karreterako bizikleta erabiltzen nuen kirola egiteko. Umea jaio zenetik hona, garraiobide bat da, herri barruan ibiltzeko.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Herri barruan ibiltzeko askoz erosoagoa eta azkarragoa delako. Umea haur eskolara eramateko, lanera joateko, erosketak egiteko, bidegorrian bueltatxo bat emateko... Apur bat denerrako erabiltzen dut.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Herri barruan azkarrago egiten dituzula gauzak, aparkatzeko arazo barik. Erosoagoa da, ez dugu kutsatzen eta, gainera, osasungarria ere bada.

Zer egingo zenuke bizikleraren erabilera sustatzeko?

Bidegorri sarea osatzen jarraitu. Bestalde, errespetuz ibiltzea eskatuko nuke; nik kotxei errespetua eskatzen didien moduan, geuk ere oinezkoekiko errespetuz jokatu behar dugu. Elkarbizitza posible da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nik uste dut gero eta jende gehiago ibiliko dela. Espero dut ez dadila moda batean geratuko.

Bizikletaren erabilera ezberdinak

Bizikleta, banatzaileen etorkizuneko elementu jasangarria

Jasangarritasuna bilatuz, geroz eta gehiago dira bizikleta gainean banatzaile lana egiten duten pertsonak. Atmosferako kutsadura murrizteaz gain, ekonomikoki eta batez ere osasunean, hobekuntza nabarmenak igerriko ditugu. Banaketarako erabili ahal diren ibilgailuen sorta asko ugartu da azkenaldian. Orokorrean bizikleta konbentzional bat da non bere diseinuan, zama edo karga eramateko kutxa bat bat txertatzen den. Kutxa hau tamaina ezberdinetakoa izan daiteke eta bizikletaren egituraren arabera, toki ezberdinetan kokatu daiteke. Hala ere, esan beharra dago, karga handiak eramateko prestatzen diren bizikleten sorta ere, geroz eta handiagoa dela. Etorkizunean aukera ugari emango dituen ibilgailua dela bizikleta, alegia.



CargoBike delako bizikleta bat.

Merkatua >

Historia aldatu nahi duen gurpila Loopwheels



Loopwheels historia aldatu nahi duen gurpila da. Ingalaterran sortu dute eta gurpil hauek amortiguazio sistema berezi bat eskaintzen dute. Hagun hauen barruan kokaturiko karbono xaflek, amortiguazio sistema tangenziala sortzen dute. Bizikleta gidatzeak, sententzio oso atsegina sortzen du.

Bideoa:

<http://www.youtube.com/watch?v=LxzCIPfw4>

Web orria:

<http://www.loopwheels.com/>







• CALBARAGINTZA - CALDERERIA
Ondul zutimaila, 25 • Tel: 943 71 63 60

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Ondul zutimaila, 25 • Tel: 943 78 85 65
Atzoka kale, 32 Ierakusketa



Emma Johansson, iazko irabazlea, Marianne Vos, munduko txapelduna, eta **Pauline Ferrand**, Munduko Kopako liderra Oñatin izango dira

Munduko emakume txirrindulari onenak Oñatin bilduko dira

EMAKUMEEN BIRAko bigarren etapa jokatu da Oñatin ekainaren 13an

Kirolazetak eta, bereziki, txirrinduzaleak zorioneko daude. Ekainaren 13an Emakumeen Birako bigarren etapa jokatu da Oñatin, eta munduko txirrindularirik onenak bilduko dira bertan. Emakumeen Euskal Bira UCI mailako lasterketa da eta, beraz, emakumezkoen tropelean mundu mailan dauden 18 talde onenak ariko dira lehian. Tartean, Euskal Herrian dauden UCI mailako bi taldeak, Lointek eta Bizkaia-Durango.

Ainhua Martin / kirol batzeordeburua

Dei egiten diet herritarrei errepide bazterrera irten daitezen kirol ikuskizunaz gozatzen

egiteko modu egokia dela uste dugu” adierazi du Ainhua Martin kirol batzordeko buruak.

Udaleko Kirol eta Berdintasun sailekin batera, Aloña Mendiko Txirrindularitza sailak, Feminista Sareak eta Abixaren taldeak parte hartu dute antolakuntzan. Ainhua Martinekin eskerrak eman zizkien guztiei, eta karrera egunean bidegurutzeak zaintzen lagunduko duten herritar guztiei.

Bestalde, Martinek dei egiten die herritarrei, ekainaren 13an kalera eta errepide bazterrera irten daitezen kirol ikuskizunaz gozatzen. Trafikoan ez du aparteko eraginik izango lasterketak. Tropela pasatzen den unean bakarrik etengo da trafikoa. Kontuan hartu, hala ere, Olaiturri eta Ibarra inguruetan txirrindulari taldeentzako eta antolatzaileentzako aparkalekuak egokituko direla.

EMAKUMEEN KIROLA SUSTATU

Aretxabaletako udalaren ekimenez, iaz erabaki zuen Debagoieneko Mankomunitateak urtero Birako etapa bat antolatzea. Iaz Aretxabaletan jokatu zen, arrakasta handiz, eta aurtengo Oñatiko Udalak hartu du ardura. “Goi mailako kirol ikuskizun bat herrira ekartzeaz gain, emakumezkoen aukera berdintasunaren alde



Udala, Emakumeen Bira kirol elkarteak, Sare Feminista eta Abixaren taldeko ordezkariak

■ DORLETA ESKAMENDI / Bizkaia-Durango taldeko txirrindulari gipuzkoarra

UCI mailakoa da Bira. Urteko probarik garrantzitsuenetakoa guretzat

Leire Olaberria eta Ana Santestebanekin batera, gaur egun emakumezkoen elite mailako tropelean dabilen Gipuzkoako txirrindularirik onenetakoa da Dorleta Eskamendi (Errenteria, 1992). Euskadi eta Espainiako txapelketa izan da Sub-23 mailan, eta bere laugarren Emakumeen Bira izango da aurtengoa.

Zer da Emakumeen Bira zuretzat?

UCI mailako proba da eta, gainera, etxean jokatzeko da. Beraz, urteko zitarik inportanteenetakoa da, duda barik.

Bizkaia-Durango taldeko buru izango zara Leire Olaberria-ekin batera. Zein da helburua? Emakumeen Bira oso proba gogorra eta zaila izaten da guretzat, munduko txirrindulari onenak etortzen direlako. Guk badakigu zein den gure maila eta oso zaila dela lehen postuetan ibiltzea.

Horregatik, beste helburu batzuk izaten ditut urtean zehar: Espainiako txapelketan aurrean ibiltzea, Europako txapelketarako sailkatzea...

Hala ere, esan bezala, Bira oso karrera inportantea da guretzat, eta saiatuko gara lanak ematen faboritoei eta talde-itxura ona ematen.



Sub-23 mailan Espainiako txapelketa irabazle izan da Dorleta

Alde handia al dago Emma Johanson (iazko irabazlea), edo Marianne Vos bezalako txirrindulariak eta zuen artean? Bai. Horiek profesionalak dira; munduko onenak. Guk berriz, txirrindularitza eta ikasketak batera eraman behar ditugu.

Oso politak dira emakumeon karrerak; taldeak txikiagoak dira, ez da kontrolik egoten eta faboritoen arteko lehia egoten da.

Johanson edo Vos bezalako txirrindulariak profesionalak dira. Guk berriz ikasketak eraman behar ditugu

Maila bat edo bi gorago daude. Hala ere, urtetik urtera gero eta gertuago ikusten dut neure burua lehen postuetatik, eta horrek motibatzen nau.

Txirrindularitza bizi ziteke al da zure ametsa?

Oso zaila da. Belgika edo Holanda bezalako herrietan indar handia du emakumeon txirrindularitzak, baina hemen oso ahul dago. Espainia osoan UCI mailako bi talde bakarrik daude (Durango eta Lointek), biak Euskal Herrian, eta oso aurrekontu mugatuekin.

Iaz Giroan ere parte hartu zenuen, ezta?

Bai, eta oso esperientzia ederra izan zen. Emakumeentzat dagoen karrerarik onena da. Aurten ere badugu gonbidapena, baina ez dakit joan ahal izango garen. Munduko Kopako proba batzuetan (Flandriako Tourra, Flech Wallon...) ere parte hartzen dugu, baina zenbakiak egiten beti ere, nora joan eta nora ez erabakitzeke.

Ekainaren 13ko probari begira, zer esango zenieke Oñatiko txirrinduzaleei?

Hurbiltzeko errepide bazterrera karrera ikustera. Oso politak izaten dira emakumezkoen karrerak; taldeak txikiagoak dira, ez da egoten kontrolik, eta faboritoen arteko lehia egoten da. Eliminazioko karrerak izaten dira. Saiatuko gara zerbait polita egiten.



IBILBIDEA: Oñati - Oñati (113 km.)

Oñatin hasi eta bertan amaituko da ekainaren 13ko etapa. Unibertsitate etorbidean (parrokia aurrealdean) egongo da irteera eta helmuga puntua. Arratsaldeko **15:50** abiatuko dira txirrindulariak. Herri barruan ibilaldi neutralizatua (Bakardadeko Ama, Euskadi Etorbidea, Aita Lizarralde, Kalegoiena, Arantzazuko Ama) egin ondoren, saihesbidetik Arrasate aldera joko dute.

Ondoren, bi aldiz pasako dira lasterketa Oñatiko helmuga puntutik **16:51** eta **17:29**ak aldera. (Otaui zuhaiztiaz tarteko helmuga egongo da). Oñatitik bigarren aldiz pasa ondoren, eguneko bi mendateak igo beharko dituzte: **Udana** (3. mailakoa) **17:47**ak aldera, eta Atagoiti (2. mailakoa) **18:26**etan. Handik Oñatira etorriko dira. Saihesbidetik bueltan, Otaui Zuhaiztitik sartuko dira herrira, eta arratsaldeko **18:48**ak aldera iritsiko dira helmugara.



TERTULIXA ekainak 11

'Kirola itteko gogua nahikua don?

Emakumeen Birako etapa girotzeko, hainbat ekitaldi (bizikleta tailerra, hitzaldia, ziine emanaldia...) antolatuta ditu Udalak, Feminista Sarea eta Abixaran taldeekin batera. Egitarau horren barruan, ekainaren 11n tertulia interes-garria egingo da udaletxeko pleno aretoan, 18:30etan. Herriko emakume kirolari ezberdinek parte hartuko dute: Marisol Ramos, Jone Elorza, Josune Odriozola, Sara Gomez...

UDANA KO IGOERA

ekainaren 14an jokatuko da

Udana-Oñatiko Motor Taldeak antolatuta, Udanako IX. Igoera jokatuko da ekainaren 14an. Euskadiko Mendiko Igoeren txapelketan aurten dauden zortzi probetako laugarrena izango da, eta Euskal Herriko pilotorik onenak batuko dira bertan.

Aitor Zabaleta bergararra izango da aurten ere faborito nagusia. Orain arteko hiru probetan (Opakua, Gorla eta Aia) nagusitu da, baina, gogoratu, azken bi urteetan ezin izan duela irabazi Oñatin.

Azpirarratzekoa da, bestalde, Aitor Ramirez oñatiarrak orain arteko probetan egindako lana. Turismoaren sailkapen orokorreko buruan dago. David Ardionsek Udanari neurria ondo baino hobeto hartua diola erakutsi du azken bi edizioetan (duela bi urte irabazlea izan zen, eta iaz lehenengoa turismoetan) eta aurten ere aurrean ibiliko da, Ruben Nogueiras bezalaxe.

Iaz, Aitor Arakistain (2.44,365) monoplazetan eta DAvid Ardions (2.53,088) turismoetan, izan ziren azkarrenak.



Oñatiarren iazko podiuma

ORDUTEGIA

10:30-12:30

Kotxeen egiaztapena plazan

12:30-13:00

Kotxeak ikusgai plazan

12:30 Udanako errepidea itxiko da

13:15 Kotxeak Udanaruntz abiatuko dira karabanan

15:00 Entrenamendu saioa eta bi manga ofizialak

19:30-20:00 sari banaketan plazan

Oñatiko II. RAID ABENTURA

erresistentzia, orientazioa eta superbibentzia proba



Oñatiko II. Raid Abentura jokatuko da ekainaren 28an. Euskal Herriko Columbia Raid Series ligako zazpi proba puntua-garrietatik hirugarrena izango da.

Kirolarien erresistentzia, orientazioa eta superbibentziarako gaitasuna probatzeko lehiaketa multidiziplinarrak dira Raid-ak. Bi laguneko taldeka jokatzen da, eta lehiakideek proba ezberdinak egin behar dituzte Oñatiko txoko ezberdinetan, mapa eta ipar-orratza lagun dutela.

Normalean mendi bizikleta eta trekking erako probak izaten dira, baina horiez gain, arku-tiroa, BTT trebetasuna, eta soka nahiz uretako proba bereziak ere egin beharko dituzte Oñatin. Hiru mailatan jokatuko da: gizonezkoak, mixtoa eta emakumezkoak. Informazioa eta izen-ematea: <https://sites.google.com/site/onatiraid>

MENDI IRTEERA / Ekainak 15

ARALAR MENDILERROA

(Amezketan-Ganbo (1402m.-Larraitx)

Aloña Mendiko Mendi sailak hil honetan antolatutako duen irteeran Aralar mendilerroa joko dute. Amezketatik abiatuta, goiko lautadara igoko dute, Ganbo (1402 m.) tontorrera iristeko. Larraitzen amaituko da ibilaldia.



► **EGUNA:** Ekainak 15, igandea.

► **IRTEERA:** goizeko 8etan, autobus geltokian

► **IZEN-EMATEA:** ekainaren 12a baino lehen, Aloña tabernan. Bazkideak 10€; ez bazkideak 13€; langabetuak 5€.

OÑATIARRAK AIZKORRIKO MENDI MARATOIAN

Iban Letamendi izan da aurten oñatiarren artean azkarrena Aizkorriko mendi maratoian. Sekulako denbora egin zuen Letamendik, 4 orduko mugara hurbilduz. Guztira bost oñatiarrek amaitu zuten proba.

- Iban Letamendi (14.) 4:04.42

- Iokin Garai (97.) 4:51.23

- Asier Urdanpilleta (135.) 5:20.22

- Iker Agirrebalzategi (180.) 5:20.22

- Joxean Larrea (306.) 6:08.19

HARITZA

Paperdenda
Liburudenda
Lotoa
Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 95

BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



Eskubaloian txapeldun, neskak eta mutilak

Aloña Mendiko Kadete eta Gazte mailako eskubaloia taldeek irabazi egin zuten maiatzaren 10-11n Oñatin jokaturako Igoera Fasea, Urdaibai eta Ereintza taldeen aurka. Horrenbestez, datorren urtean Euskal Ligan jokatzeko txartela eskuratu dute, urte osoan egin dako lan bikaina borobilduz. Bestalde, kadete mailako mutilen taldeak Foru Aldundiko txapelketa irabazi du. Zorionak guztiei!

EUSKAL HERRIKO SELEKZIOAK OÑATIN

Aloña Mendiko eskubaloia sailak antolatuta, Euskal Herriko selekzioen arteko VIII. Korpus txapelketa jokatu da ekainaren 14an Zubikoa kiroldegian. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Infantil mailako selekzioek jokatu dute, mutilen eta nesken. Goiz eta arratsalde partean jokatu dira partiduak. Aloña Mendiko June Bermejok Gipuzkoako Selekzioarekin jokatu du.

IGERIKETA

Urbina eta Diazek bina domina Tarbesen

Xabier Urbina eta Nerea Diaz Aloña Mendiko igerilariak bina domina lortu zituzten Tarbesen jokaturako nazioarteko sarian. Nereak, Infantil mailan, urrea lortu zuen 100 Bizkarrean (1.11.23) eta zilarra 50 Bizkarrean (33.18). Xabier 2. sailkatu zen 50 Bizkarrean (29.71) eta 4x100 estiloetan Gipuzkoako selekzioarekin.

TXANTXIKU SARIA EKAINAREN 14AN Ekainaren 14an Txantxiku Igeriketa saria jokatu da Zubikoan



TXIRRINDULARITZA

Xabier Murgiondo garaile Lazkaon

Aloña Mendi-Ulma taldeko Xabier Murgiondok maiatzaren 24an Lazkaon jokaturako LVIII. Hesparru saria irabazi zuen Kadete mailan. Sprintean



erabaki zen lasterketa eta bera izan zen azkarrena 35 lagunekin tropeltxoan.

FUTBOLA

Kadete mailan txapeldun

Jon Aizpeurrutia eta Jose Luis Lazkanok zuzentzen duten kadete mailako futbol taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi du, IIintxari 1-0 irabazita finalean, Joseba Anduagak sartutako golari esker. Gainera, kadeteen ohorezko mailara igotzea ere lortu du taldeak, denboraldi bikaina borobilduz. Zorionak!



ANE MERTZERIA

- Joatako zurez
- Lantzeria
- Urteko jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

OÑATIKO I. PATIN EGUNA / UZTAILAK 5

Patinatzea gustuko duen herritar talde batek Oñatiko I. Patin Eguna antolatzea erabaki du. Uztailaren 5ean izango da. Goizeko 10:45etan plazan bildu eta 11:00etan ibilaldia egingo dute patinetan, bidegorritik. Bi aukera egongo dira: 1-Oñatitik Madalenara eta buelta (umeentzat eta hasiberrientzat); 2- Oñati eta San Prudentzio arteko joan-etorria.

Amaieran pintxoak eta musika egongo dira plazan (12:30). Bertan bazkaltzeko aukera ere egongo da hala nahi dutenentzat, asteburu horretan Aloña Mendiko garagardo azoka ospatuko dela aprobetxatuz. Arratsaldean (17:30) Slalom erakustaldia egingo da.

Olakuako Txirrindulari proba-Ekainak 8

Ekainaren 8an Kadete mailako Olakuako XXIX. Txirrindulari lasterketa jokatu da, arratsaldeko 16:00etan hasita. Aurten gainera, Euskadiko txapelketa izango da. Gogoratu, Aloña Mendiko Kadete mailako taldea Gipuzkoako azpitxapelkun geratu berri dela taldekako erlojupeko txapelketan. Beraz, sasoi onean iritsiko dira.



Korpus bezperako XII. Nazioarteko lasterketa

Korpus bezperako atletismo lasterketak iazko formatoari eutsiko dio aurten ere; hau da, Euskal Herrian jaiotako korrikalariak bakarrik parte hartuko dute, baina puntako korrikalariak guztiak ere. Maila handiko 16 korrikalari ekartzea da Antxintxiketan kirol elkartearen asmoa. Horiez gain, Antxintxiketan elkartearekin harreman berezia duten 3-4 atleta ere gonbidatuko dituzte. Beraz, ikuskizun ederra izango dugu aurten ere. Ekainak 21, 19:00.

Torreazoko XVII. Herri Lasterketa

Ekainaren 29an, igandea, goizeko 11etan jokatu da Torreazoko lasterketa Antxintxiketan kirol elkarrekin antolatuta. Goizeko 11etan izango da ohiko ibilbidean: Torreazoko eta Olate arteko joan-etorria (7,5 km.). Izen ematea zabalik dago www.kirolprobak.com webgunean. Bestela, ekainaren 9tik aurrera Mendizabal kirol dendan ere eman daiteke. Ekainak 29, 11:00

Zubillaga-Askazuri arteko BTT-kronoigoera

Zubillagako jai egitarauaren barruan, Zubillaga eta Askazuri arteko I. BTT-Kronoigoera (3,3 km. eta 500m.-ko desnibela) jokatu da ekainaren 28an. Goizeko 10:00etatik 10:45ak arte egingo da dortsal banaketa Zubillagako pilotalekuan (izen-ematae dohainik), eta 11:00etan hasiko da lehia.

Gimnasia erritmikako erakustaldia

Aloña Mendiko gimnastek erakustaldia eskainiko dute ekainaren 15ean Zubikoa kiroldegian, eguerdiko 12etan hasita. Lide Osinagaren aginduetara entrenatzen duten Oñatiko 60 bat neskatilak parte hartuko dute, Bergarako gimnasia taldekoekin batera. Urtean zehar landutakoa erakutsiko dute.



Oñatiko txakolina eta gazta Iñigo Martinezentzat

Txantxiku Txuriurdinak lagunarteko kideek erabaki zuten Oñatiko produktuak oparitu zizkionela Iñigo Martinezi, sartzen zuen gol bakoitzeko. Hala, argazkian ikusten den moduan, Mikel Abaunz eta Iñigo Aranburu peñako kideak Zubietara hurbildu ziren, Ondarruko jokalariek Rayoren aurka sartutako azken golagatik zegokion oparia ematera: Murgialdaiko txakolina, Azkarretako gazta eta Fernando Zelaia emandako txanpain botila.



Hiru dokmina Euskadiko Karate txapelketan

Aloña Mendiko karate saileko Mikel Unzurrun-zaga, Karmele Egaña eta Alazne Unzurrunzagak domina bana lortu dute Euskadiko Kirol Eskola Txapelketan



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxori Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorrak: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAN

PERFORAK, LUBAKAK, LUZ PINTATZEAK, ARBUAK, PINTURAK LANAK...






DIRUTIAKATZARIEK ERABILTZAILERAKO
DIRUTIAKATZARIEK ERABILTZAILERAKO
DIRUTIAKATZARIEK ERABILTZAILERAKO

943 78 30 09 - 943 78 30 09

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Maider Arregik irabazi du Gipuzkoako bertso eskoletako txapela

Ekainaren 21ean Euskal Herriko finalean parte hartuko du

Maider Arregi Markuleta, Oñatiko Bertso Eskolako kideak, Gipuzkoako 34. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi du. Maiatzaren 25ean jokatu zen finala, Arrasateko Amaia antzokian, 400 bat ikusleren aurrean. Maiderrekin batera, Eneko Araiztegi (Segura), Jon Gurrutxaga (Azpeitia), Iñigo Ibañez (Azpeitia), Aratz Igarzabal (Gabiria), Paul Iruretegaia (Ataun), Iraitz Mateo (Oiartzun) eta Amaia Urbieto (Zarautz) aritu ziren finalean. Maialen Lujanbio izan zen gai-jartzailea.

Danera, zazpi bertso puntuagarri abestu behar izan zituzten: zortziko handian eta txikian bina ofizioka; lau oinak emanda zortziko txikian bat; puntua eta gaia emanda bertso bana.

Maila onean aritu ziren guztiak, baina tentsioa eta nerbioen ondorioz, akatsen bat edo beste egin zuten gehienek, eta Maiderrek aldiz oso saio erregularra egin zuen, gozo eta



Patxi goikolela, Euskal herriko lehen bertso eskolaren sortzaileak eman zion txapela

fin kantatuz. Batez ere bakarkako lanean nabarmendu zen; ofizioetan ez zen nahi bezain eroso sentitu, ariketa gustukoena horixe izaten duen arren.

Euskal Herriko lehen bertso eskolaren sortzailea izan zen Patxi Goikoleak (Arrasate, 1933) eman zion txapela Maiderri. Agurreko bertsona, Maiderrek esker-erak eman zizkien bereziki txapelketa prestatzen lagundu dioten Iñaki Olalde, Gontzal Belategi eta Urko anaiari.

Euskal Herriko finala

Orain Euskal Herriko txapelketako finalean parte hartuko du Maiderrek. Ekainaren 21ean izango da Orion. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko lehen bi sailkatuek parte hartuko dute. Saio polita egin eta bere buruarekin gustora gelditzea izango da helburua. Baina txapela ere ez da urruti izango, seguru!.



Basarri eta Uztapide Arantzazun

Oñati eta bertsolaritza

► Bertsolaritzak Oñatin utzi dituen anekdota, argazki eta testigantzak jaso nahi ditu Bertso Eskolak

Bertsolaritzak historian zehar Oñatin utzi dituen harribitxiak jaso nahian dabilta bertso eskolako kideak. Helburua, bertako bertsolaritzarekin zer ikusirik duen edozein anekdota, kontakizun, bertso, argazki edo testigantza jasotzea da, artxi-boa osatu eta liburu batean argitaratzeko asmoz. Beraz, lan hone-tan aportazioren bat egin nahi duena jar dadila harremanetan Urko Egañarekin (665736605).

IBURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



25 urte musikazaletasuna sustatzen

► **Jose de Azpiazu Musika Eskolak** 25 urte betetzen ditu aurten

► **Ekainaren 21ean kontzertu berezia** egingo dute plazan, Salou-ko musika eskolakoekin batera ► **Ikasleekin** grabatutako CDa aurkeztuko dute



José de Azpiazu (1912-1986) herriko musikari eta kitarrajole handiaren izena daramen Oñatiko Musika Eskolak 25 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko kontzertu berezia eskainiko dute ekainaren 20an herriko plazan. Ekitaldi horretan bertan, zilarrezko ezteiak ospatzeko grabatu duten CD bikoitza aurkeztuko dute. Gainera, Salou-ko musika eskolako kideek ere parte hartuko dute, Oñatikoekin egin duten elkartrukea osatuz.

Musika Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunak iazko apirilean hasi ziren. Orduko hartan, Musikaldia (Euskal Herriko Musika Eskolen jaia) ospatu zen Oñatin. Urteurrena borobil-tzeko, udazkenean, herriko jaien ondoren, kontzertu benefiko bat egiteko asmoa ere badute, besteak beste.

HASIERA ERREKALDEN

1988-1989 ikasturtean jarri zen abian Oñatiko Musika Eskola, Errekalde Herri Esko-lako 2. solairuan. Herrian zegoen egarri edo behar bati erantzunez sortu zen, garai hartan udaleko Kultura batzordeko burua zen Migel Angel Kortabarriak azaldu digunez. "Solfeoa eta musika instrumento gutxi batzuk ikasteko aukera bazegoen etxe partikularretan, baina eskola bat falta zen, musika kulturari benetako bultzada emateko".

Lantalde bat eratu zen, herriko musika eragile eta zenbait gurasoren laguntza-rekin. Ernesto Unzurrunzaga arduratu zen proiektuari forma emateaz, eta udalbatza onartu ondoren, 1988ko udazkenean jarri

zen martxan musika eskola. Garai hartan Herri Eskolak ikasle gutxiago zeukan, eta bertako bigarren solairuko hegal batean egokitu zituzten ikasgelak. "Intsonorizatutako bospasei kabina eta talde-lanerako beste hainbat gela prestatu, instrumento sorta bat erosi (piano bat opari jaso genuen) eta halaxe jarri genuen martxan musika eskola" gogoratzen du Kortabarriak.

ZUZENDARI ETA IRAKASLEAK

Iñaki Aldekoa izan zen musika eskolako aurreneko zuzendaria (1988-1990). Maila handiko soinu-jolea zen Aldekoa; munduko txapelketan ere parte hartu zuen 17 urte zituela. "Ordurako Donostian nenbilen lanean eta Oñatiko musika eskolan gestio lanak egin behar izan nituen batez ere: gela prestatu, irakasle-ak aurkitu..." gogoratzen du Aldekoak. "Harreman ona genuen Eskola Publikoko eta euskaltegiko irakasleekin (Jabier Aranzeta zena dut gogoan), eta baita Joxe Mari Agirrebengoa 'Txinparta' zena eta Sarramendi zinegotziarekin ere. Guztien arteko elkarlanari esker atera genuen eskola aurrera".

Musika Eskolaren baitan sortu zuten akordeoi orkestrako zuzendaria ere izan zen Aldekoa.

Gerora, beste bost zuzendari izan ditu Oñatiko musika eskolak: Jesus Valcarlos (1990-1992), Araceli Guridi (1992-1995), Ainhoa Galdos (1995-2002), Arantxa Iturrioz (2002-2008) eta Aitor Madina (2008tik gaur arte).

Irakasleei dagokienez berriz, Juan Carlos Irizar, Iñaxio Ibarrondo, Loli



Ordoki, Joxe Mari Anduaga, Peio Zabala, Jesus Legorburu, Mertxe Unzilla, Araceli Guridik, Arantzazu Bikuña, Jesus M^a Valcarlos, Mila Zubimendi, Eli Auzmendi eta Izaskun Barreña zueden hasierako lantaldean.

Horietako bik, Arantzazu Bikuña eta Araceli Guridik, gaur egun ere jarraitzen dute irakasle lanetan, eta inork baino hobeto ezagutu dute musika eskolaren mende laurdeneko ibilbidea. "Lehen urteak gogorrak izan ziren, baina ilusio handia geneukan proiektua aurrera ateratzeko" dio Aracelik. "Oso inportantea izan zen Oñatin musika arloan lanean ari ginen guztiok eskola batean batzea".

Eskolaren beraren izaera eta filosofia ere asko aldatu omen da 25 urte hauetan. "Hasieran, batez ere helburu akademiko batekin etortzen zen jendea" dio Arantzazuk. "Orain berriz, tituluak ez dauka hainbaes- teko garrantzia; gehiago da disfrutatzea, talde batean sartu eta herriko ekitaldietan parte hartzea. Oso polita eta aberatsa da hori". Aracelik ere musika eskolak duen funtzio soziala azpimarratzen du, bertako taldeek herri mailako ekitaldi asko girotzen dituzte-lako. "Gainera, musika banda eta bestelako talde batzuen harrobia ere bada musika eskola".

Esteban Urzelai, Aitor Biain, Iñigo Ugarte eta musika arloan erreferente diren beste hainbat pertsona musika eskolatik pasa direla ikusteak pozgarria dela dio Aracelik.

Musika eskola ezagutu eta musika ikastera animatzen du jendea Arantzazuk, musikak aberastu egiten baitu gure bizitza. "Hasieran pittin bat zaila da, eta emaitzak ez dira berehala ikusten, baina gero oso gratifikantea da".

Errekaldetik Gorritxitxira

Herri Eskolan eta musika eskolan bertan izandako ikasle kopuruaren gorakadari irten-bidea emateko, 2000. urtean Gorritxitxira lekualdatu zen musika eskola, ordura arte Ostalaritza Eskolaren egoitza izandakora, eta bertan dago gaur egun ere. ■



Musika sentitu, bizi eta gozatzeko aukera ematen du musika eskolak

Adin guztietako 350 ikasle ditu gaur egun

350 ikasle eta 15 irakasleekin, José de Azpiazu Musika Eskola osasuntsu iritsi da 25. urteurrenera. Barne funtzionamenduan egindako egokitzapenei esker, krisi ekonomikoari aurre egin eta balantze ekonomikoa orekatzea lortu dute. Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiote Udalari, urte hauetan guztietan emandako laguntzagatik.

Arlo pedagogikoan ere osasuntsu dago musika eskola. Eskaintza zabalduz eta egokituz joan da 25 urte hauetan, eta gaur egun 15 instrumento ikasteko aukera dago bertan, lengoia musikala, harmonia, 'Ban ing a box' (base erritmikoak musikatzeko teknika) eta informatika musikalaraz gain.

4 URTETIK AURRERA, ADIN MUGA BARIK

Lau urterekin hasten dira neska-mutikoak musika eskolan. Erritmoa eta musikazaletasuna lantzeaz gain, musika notak eta, poliki poliki, lengoia musikala ikasten joaten dira. Oso lagungarria gertatzen zaie oinarri hau, gero instrumentoa ikasteko garaian. Musikaz gain, arreta, memoria, koordinazioa, diziplina eta beste hainbat faktore ere lantzen dituzte.

6-7 urterekin musika tresna aukeratzen dute. Hortik aurrera, lengoia musikalean sakonduu eta, 10-11 urtetik aurrera, musika eskolako talde ezberdinetan parte hartzen dute. Musika korala ere lantzen dute osagarri moduan.

Musika Eskolako eskaintzak ez dauka adin mugarik. Eta gaur egun gero eta gehiago dira instrumento ezberdinak (pianoa, kitarra, saxofoia, txistua...) ikastera animatzen diren persona helduak eta jubilatuek.

ESKOLAN IKASITAKO HERRIRA ZABALDU

Musika eskola ez da instrumentoa ikasteko akademia bat. Musika eskolak funtzio sozial bat dauka eta bere misioa edo helburua da eskolan landutakoa berriz ere herrira zabaltzea. Helburu horrekin, musika eskolaren baitan hainbat talde sortu dira: akordeoi orkestra, trikitixa taldea, triki-konboa, haize taldea, txistu taldea, abesbatza, eta beste hainbat ganbara talde. Talde horiei esker, musika eskolako ikasleek aukera dute gelan ikasitakoa praktikan jarri eta herriko kultur bizitzan parte aktibo izateko. Herri mailako hainbat ekitaldi girotzeaz gain, San Martin egoitzan eta Eguneke Zentroan ere eskaintzen dituzte saioak, musika eskola bizi-bizirik dagoela erakutsiz.




15 instrumento ezberdin ikasteko aukera dago musika eskolan, adin muga barik

Julian Sagasta organojolearen biografia eta haren omenezko CDa aurkeztuko dituzte ekainaren 25ean

Aurten betetzen da Julian Sagasta Galdos (Arrasate, 1914-Roma, 2005) organojole handiaren jaiotzaren mendeurrena. Hori dela eta, Jose Antonio Azpiazu eta Xabier Ugarte oñatiarrek haren biografia idatzi dute, eta, bestalde, 'ausArt records' disketeak CD bat grabatu dut musikari arrasatearraren omenez, Aitor Olea organojole durangarrak interpretatutako musika-rekin.

Julian Sagasta arrasatearra zen, baina lotura estua izan zuen Oñatirekin. Ama hemengoa zuen eta, gainera, 10 urte zituela, Oñatiko Agustinoen seminaria etorri zen. Bertan egin zituen abadetzarako ikasketak, eta bertan ikasi zuen solfeoa, pianoa eta organoa (Fernando Urkia maisuarekin). Gero, Burgosen osatu zituen ikasketak, eta han ezagutu zituen Aita Madina, Mallea eta bere lagun mina izan zen Juan Zelaia, besteak beste.

18 urte zituela Erromara destinatu zuten, eta bertan eman zuen ia bizitza osoa. Teologia ikasi eta musikan sakontzeko aukera izan zuen, Fernando Germani Vatikanoko organojolearekin, besteak beste. Musika-lan ikaragarria egin zuen. Interprete bezala dohai apartak zituen, baina transkripzio lan garrantzitsua ere



Julian Sagasta Oñatiko parrokiako organoan, 1972an, Julian Zelaia omenaldian



Biografia eta CDaren aurkezpen ekitaldia

EKAINAK 25
San Migel Parrokian
20:00

Biografiaren aurkezpena eta organo kontzertua

Julian Sagastaren biografia-liburua aurkeztuko dute Jose Antonio Azpiazuk eta Xabier Ugartek. Ondoren Aitor Olea organojole durangarrak kontzertua emango du. Aitor Oleak berak grabatu du 'ausArt records' disketeak kaleratu duen CDa. Bertan Julian Sagastak bere emanaldietan interpretatu ohi zuen musika entzun daiteke.

egin zuen, antziñako musika organorako moldatuz.

Aurrena abade, gero organojole

Horixe esaten zuen berak, alegia, lehenengo abadea zela, eta gero organojolea. San Giuseppeko parrokian egiten zituen abadetz lanak, eta gerra osteko urteetan, lan handia egin zuen errefuxiatuei eta neska-mutiko umezurtzei laguntzen. Judutar familia askori ere lagundu zien, ezkutalekua eskainiz. Artista handia, baina oso gertukoa izan zen.

LIBURU-AZOKA antolatuko dute Arantzazuko fraideek ekaineko igandeetan

Arantzazuko santutegian liburu asko argitaratu izan dira bere 500 urteko historian. Sute bat baino gehiago jasan duen arren, bere liburutegiak 100.000 argitalpenetik gora gordetzen ditu. Balio handiko altxorra, inondik ere.

Obra horiek publikoari gerturatzeko asmoz, ekaineko igande goizetan liburu-azoka eprestatuko dute santutegiko klaustroan, goizez (11:00-12:00 eta 13:00-14:00). Arantzazuko editorialaren argitalpenak begiratu eta merke erosi ahal izango dira, besteak beste, Bitoriano Gandiaga, Luis Villasante, Pello Zabala, Iñaki Beristain eta Joxe Luis Zurutuzaren lanak.

Gainera, ikusgai egongo da frantziskotarrek berriki berriztatu duten San Agustinen 1495eko inkunablea. Berritze lanak nola egin diren ere erakutsiko da proiektio baten bidez.

Egunero irakurtzeraren garrantzia aldarrikatu dute Elkar Hezikoeak

'Liburuaren Eguna' bezalako data ponposoak ospatzeko ohituraren gainetik, irakurtzeko ekintza iraultzaile eta eraldatzailea egunero egin beharreko zerbait dela aldarrikatu zuten Elkar Heziko ikasleek Kale Barrian egindako performance baten bidez. Argazkian ikusten den gisan, ikasleak kaleko txoko ezberdinetan eserit ziren liburuak eskutan hartuta, irakurtzeko 'ekintza' naturaltasunez azaldu eta egunero irakurtzearen garrantzia aldarrikatzeko.

Euskal Musikaren historia. Elkar Heziko DBHko ikasleek antolatuta, Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez musikariak hitzaldi-kontzertua eskainiko dute ekainaren 13an (15:00) kultur etxean. Ikasleei zuzendutako saioa da, baina lekua geratuko balitz, herritarrek ere sartzeko aukera izango dute.



Afrikari buruzko jardunaldia Arantzazun

TAU Fundazioak eta Arantzazuko Adiskideen Elkartek antolatuta, Afrikari buruzko jardunaldia egingo da ekainaren 7an Gandiaga Topagunean. Goizeko 10:30etan hasita, zine emanaldiak, erakusketak eta hitzaldiak egongo dira egun osoan zehar. Parte hartzea doan da. Bestalde, ekainaren 15era arte 'Behar beharrezkoak' izeneko erakusketa dago ikusgai kultur etxean. Nafarroan bizi diren Afrikako pertsonen argazkiak dira. Afrika ameslari, bizi eat langile baten irudia.

Parisen daude ikusgai Joxan Izaren margolanak



Joxan Iza, Oñatin bizi den artista bergararrak, 'Parcours' izeneko margolan sorta eraman du Parisera, eta bertako Natalia Gomendio galerian dago ikusgai ekainaren 21era arte. Zorrti urtez bizi izan zen Iza Parisen 1980ko hamarkadan, eta orduko oroitzapenak islatu nahi izan ditu 30 margolanetan. Teknika ezberdinak uztartuz (oleoa, akrilikoa, barnizak, argizaria, collage-a...) Paris eta bertako hiritarren inguruko bere mundu-ikuskerak partikularra jaso du Izak. Formato panoramikoan egindako kuadroak dira, "Paris panoramikoa baita, edozein lekutatik begiratzen duzula" egileak adierazi duenez.



Natur argazkigintzako ikastaro trinkoa Aizkorri-Aratz natur parkean

Arantzazu Gaur fundazioak eta Arantzazuko Parketxeak antolatuta natur-argazkigintzako ikastaro trinkoa egingo da Gandiaga Topagunean, Gema Arrugaeta argazkilari profesionalaren eskutik. Ikastaro aurreratua izango da; aurreko urteetan eskainitako moduluetan hartutako ezagueretan sakondu nahi dutenentzat. Halaber, argazkilaritzako ezaguerak dituen edozeine parte har dezake. Hiru saio izango dira: ekainak 28, eta uztailak 5 eta 12. Orduetgia: 10:00-13:30 eta 15:30-18:00. Prezioa: 90€. Parketxean (943782894) edo arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net helbideaneman daiteke izena.



Gema Arrugaeta

EGA prestatzeko udako ikastaroa

Iraileko deialdia prestatzeko ikastaroa antolatu du Euskaltegiak
Online egiteko aukera ere egongo da.

Urtero bezala, udako 'EGA' ikastaroa antolatu dute udal euskaltegiak. EGAKo 2. deialdira begira antolatutako ikastaroa da. Honen matrakula-aldia ekainaren 30etik uztailaren 14ra, biak barne, izango da, eta Atariko Probaren eguna berriz, irailaren 20an.

Gogoan izan, EGAn matrikulatu ahal izateko urte barruan 17 urte edo gehiago bete behar direla. Euskaltegiak izena emateko, ordea, 16 urte izatea nahikoa da.

IKASTAROAREN XEHETASUNAK

- Eskola-egunak: ekainaren 30etik uztailaren 18ra, eta irailaren 1etik 5era
- Orduetgia: goizeko 9:00etatik 13:30era
- Ordu kopurua: 80 ordu
- Matrikula epea: ekainaren 2tik 20ra
- Prezioa: 116€

GAIAK ETA DENBORA BANAKETA

- Atariko proba lantzeari 20 ordu eskainiko zaizkio. Atal honetan entzumena landuko da.
- Berridazketak eta sinonimoak (10 ordu)
- Idazmena (20 ordu). Idazlanak egin eta zuzendu.
- Irakurmene (15 ordu). Irakurritakoaren ulermene lantzeko ariketak.
- Mintzamene (15 ordu). Ahozko probako ariketak.

Oharra: ariketa guztiak eskola orduetan egingo dira.

kuber
Rehabilitaciones y Obras Kuber, S.L.

Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > **FATXADAK**
- > **TERRAZAK**
- > **ESTALKIAK**
- > **IMPERMEABILIZAZIO**
- > **ERREHABILITAZIOAK**
- > **IGOGAILUAK**
- > **BASERRIAK**

%30
erraz
diru-laguntzak

LEHEN **ORAIN**

Intenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SATE).

kuber.kuber.es Tfno: 943 73 35 73 www.kuber.es

EKAINEKO AGENDA

**ekainak
11**

MUSIKA ESKOLAKO HAIZE TALDEAREN KONTZERTUA

José de Azpiazu Musika Eskolaren baitan sortutako Haize Taldeak kontzertua eskainiko du Dukearen lorategian. [Dukearenean, 19:15.](#)

**ekainak
15**

KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'THE ROMANTICOS'



Iker Piris (ahotsa eta gitarra), Xabier Barrenetxea (baxua) eta Carlos Sagik (bateria) sortu zuten taldea 2009an. Blues musika egiten du, Funky eta Rhythm&Blues ikutuekin. Sheilah Cuffy eta Tonky de la Peña bezalako musikariek ere jo dute. 2012an lehen diskoa argitaratu zuten. [lgandea, 19:30.](#)

**ekainak
27**

JAZZ ETA HABANERA DOINUAK GANBARA ABESBATZAREKIN

Ganbara Abesbatzak eta Ganbara Gazte taldeek kontzertu berezia eskainiko dute ekainaren 27an. Bidaurretako eliz atarian izango da, eta Jazz eta Habanera doinuak eskainiko dituzte. [Bidaurretako eliz atarian, 22:00.](#)

**ekainak
29**

KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'MARCEL MANOUCHE'

Inprobisatu eta antzeztutako jazz saioa. Errepertorio ganberro zein nostalgikoa jotzen du Marcel Manouche taldeak. gitarra soinuak, haizezko instrumentoak eta ahots erakargarri baten nahasketaz gozatu ahal izateko moduan. [lgandea, 19:30.](#)



**ekainak
20**

'EPA!'

musika, antzerkia eta umorea

Udal Kultura sailak antolatuta, Demode Quartet taldearen 'EPA!' ikuskizunaz goatzeko aukera izango dugu ekainaren 20an, ostirala, gaueko 22:30etan, Santa Anan. Musika, antzerkia eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna da. DQ taldekoen ustez, Country, Jazz, Samba, Bollywood edo Pop modernoaren jatorria Euskal Herrian dago, eta horixe demostratzen dute ikuskizunean. DQ taldeak iazko Donostiako Zinemaldiko irekiera eta itxiera ekitaldietan parte hartu zuen..

'LIBERTIA'

haurrentzako
kale ikuskizuna

**ekainak
21**

Hortzmuga taldearen eskutik, 'LIBERTIA' izeneko ikuskizuna izango dugu Korpuseko jai egitarauaren barruan, ekainaren 21ean, Etxaluzeko parkean, arratsaldeko 17:30etan. Hurrei zuzendutako kale-antzerkia da, libertateaz hitz egiten duena. Abentura fantastikoa da, txotxongiloak, panpaina handiak, aktoreen lana eta umorea uztartzen dituena. [Etxaluze parkean, 17:30](#)



IRAZOLA
Okindegia

Loraino buzoia, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Hazteko egia: egurrezko labea

Margoak

TXINTXURRETA

653710121
943783012

Maria Luisa Maiztegiren omenezko PINTURA ERAKUSKETA

EKAINAK 28 -UZTAILAK 13

Kultur etxean, 18:00-20:00



Maria Luisaren 40 margolan egongo dira ikusgai



Ekainaren 28tik uztailaren 13ra, Maria Luisa Maiztegi Arabaolaza (1924-2012) zenaren margolanak egongo dira ikusgai kultur etxean. Mikel Ugarte oñatiarraren ekimenez antolatutako erakusketa da, Maria Luisa gogoratu eta bere artelanak oñatiarrei erakusteko asmoz.

Gurasoen etxean M.L. Maiztegi sinatutako kuadro batzuk ikustean sortu zen Mikelengan egilea ezagutzeko gogo. Ordurako 84 urteko emakumea zen Maria Luisa, eta Mikelek 32 baino ez zituen arren, oso lagun onak egin ziren. "Oso emakume jantzia zen, irekia, jakingura eta geldigaitza" gogoratzen du Mikelek. "Artista gisa, teknikoki landua, eta pintzelkada leunekoa. Armonia eta bakea adierazten digu, argiaren eta koloreen bidez".

Mikelek askotan pentsatu izan du Maria Luisaren lanak liburu bat merezi zuela. Liburua ez, baina behintzat erakusketa hau antolatu nahi izan du Maria Luisa zena omendu eta bere lana ezagutarazteko.



VIVALDI ETA BACH Oñati eta Bergarako abesbatzen eskutik

**ekainak
29**

Kontzertu berezia eskainiko dute Oñati Abesbatzak eta Bergarako Orfeoia Aitor Biainen zuzendaritzapean. Antonio Vivaldiren (1678-1741) 'Gloria' eta 'Credo' opera sakroak eta Johan Sebastian Bach-en (1685-1750) 'Cantata BWV 131' obrak kantatuko dituzte, ganbera orkestra baten laguntzarekin. Ekainaren 29an izango da, Mikel Goiaingeruaren parrokiaren, 19:00-etan. Gero, uztailaren 7an Bergaran errepikatuko dute emanaldia.

►AUZOETAKO JAIXAK

►OLARAKO JAIXAK / EKAINAK 6-8

EKAINAK 6: 19:00 Buruhaundi eta txistulariak; 19:30 Talogileak plazan; 20:00 Bertso-poteoa plazatik hasita; 21:00 Kontzertuak: 'Gatillazo', 'Drakes', 'Ez!' eta '. **EKAINAK 7:** 10:45 Haur jolasak; 12:00 Dantza, Oñaten eskutik; 13:00 Txakur erakustaldia; 17:30 'Monda eta Lironda' pailazoak (keinu hizkuntzara egokituta; 19:00 Buruhandi eta txistulariak; 20:00 Txorizoa eta sagardoa txosnan; 20:30 Poteoa trikitilariak girotuta; 22:30 Kontzertua: 'Korrontzi' Ondoren, jolasak txosnan: Twister erraldoia. **EKAINAK 8:** 12:00 Haurrentzako bizikleta tailerra; 12:30 Meza Bidaurretan; 13:00 Euskal parrilla eta herri kirolak; 16:00 Haur jolasak; 16:00 Txirrindulari lasterketa; 16:30 Mus txapelketa; 19:00 'Pobresia' poesia musikatu errezitaldia; 20:00 Pintxopotea.

►ZUBILLAGAKO JAIXAK / EKAINAK 27-29

EKAINAK 27: 19:30 'Pello' basurdearen jeitsiera; 20:00 Auzo-barbakoa; 22:00 Umore gaua. **EKAINAK 28:** 11:00 Zubillaga-Askaziuri I. Kronoigoera; 12:00 Haur jolasak frontoian; 13:00 Gazteen I. Toka txapelketa; 16:30 Haur Jaialdia frontoian; 17:00 Mus txapelketa; 17:00 Irrien Lagunak 'Egin irri!' saioarekin, puzgarriak eta apar festa; 18:30 Txokolatada eta txorimaloak; 19:30 Diskofesta, DJ Amaia Gauargi taldearekin; dantzak, kantuak eta mozzorro lehiaketa; 22:00 Diskofestaren jarraipena eta mozzorro lehiaketako sariak. **EKAINAK 29:** 11:00 Meza; 11:45 Luntxa; 12:45 Omenaldia eta dantzariak; 13:15 Nagusientzako Toka txapelketa; 17:00 Txorimaloak eta musika; 17:15 Zinta lasterketa; 19:00 Bertsolariak elizan; 20:30 'Pello' basurdeari agurra.

►ELKAR HEZI EGUNA / ekainak 20

Urteroko ohiturari jarraituz, Elkar Hezi ikastetxeko ikasle, langile eta gurasoak Santa Marina plazan elkartuko dira hilaren 20an afari-merienda egitera. Goiza Iturigorri pasako dute DBH eta Batxilergoko ikasleek. Bertan bazkalduko dute. Bazkalondoa txikientzako tailer eta jolasak izango dituzte Santa Marina plazan. Ondoren, kontzertuak, sagardo kupela, bokadiloak... eta giro ezin hobea. Amaitzeko, Batxi-2ko ikasleei agurra egingo diete.

AGUR-ONGIETORRI FESTA

Haur Eskolan hasiko diren eta Haur nahiz Lehen Hezkuntzara doazen txikitxoek eskainitako agur-ongiotorri festa egingo dute Elkar Hezin, ekainaren 13an. Potx eta Motx pailazoen saioa 18:00etan, eta, ondoren, afari-merienda, gurasoek prestatutako txitxi-burduntzia. Trikitixa ere egongo da. Bestalde, ekainaren 5 eta 6an, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleen ikasturte amaierako jaialdiak izango dituzte, arratsaldeko 18:30etan. Udaleku irekiak Elkar Hezin Ekainaren 23an hasiko dituzte Elkar Hezin. 3 urte arteko txikientzat euskaraz, eta 3-11 urte artekoentzat ingelesez.

►Ikastaroak KZgunean

Honako ikastaroak antolatu dituzte Oñatiko KZgunean ekainerako. E-ADMINISTRAZIOA: 'Metaposta' (ek. 16-17 / 4 ordu). OINARRIZKO INTERNET: 'Internet ikastaroa' (ek. 2-13 / 20 ordu); 'QR kodeak' (ek. 2 / 2 ordu). GOOGLE APPS: 'Google Maps' (ek. 5 / 2 ordu); 'Gmail' (ek. 9 / 2 ordu). SARE SOZIALAK 2.0: 'Sare Sozialak' (ek. 19-27 / 14 ordu). IRUDIA ETA SOINUA: 'Kizoa' (ek. 30 / 2 ordu). IT TXARTELA (ek. 18). Informazio gehiago: 943 023672 edo tutor.onati@kzgunea.net helbidean

Hirugarren mailarako igoera historikoaren 20 urteurrena ospatuko du Aloña Mendik

► Orduko eta gaur egungo taldeek partidua jokatuko dute Azkoagainen ekainaren 14an (12:00)

Hogei urte bete berri dira Aloña Mendiko futbol sailak bere historiako balentriarik inportanteena lortu zuenetik. Bi urtez Preferente mailako lehen postuetan ibili ondoren, 1993-94 denboraldian lortu zuen, Fernando Azpiazu eta Julio San Vicente entrenatzaileen aginduetara, 3. mailara igotzea, herriko futbolzale askoren urtetako ametsa egi bihurtuz.

Oso une hunkigarriak bizi izan ziren herrian, Danak-en aurkako partiduen ostean herriko plazan taldeari egindako ongietorrian, eta aste-bete beranduagoko ospaki-zunetan; musika bandak lagunduta jeitsi ziren jokalariek Azkoagainetik plazara, eta udaletxeko balkoitik eskaini zieten garaipena zaleei.

20. urteurrena betetzen den honetan, une haiek gogoratu eta ospatzea erabaki du Aloña Mendik, orduko eta gaurko taldek jokatuko duten partidua baten bidez; ekainaren 13an izango da, Azkoagainen, eguerdiko 12etan. Futbolzale guztiak daude gonbidatuta.



1994ko maiatzaren 22an Loiolako Danak taldearen aurka 1-2 irabazi ondoren lortu zuen Aloña 3. mailarako txartela. Orduko argazkia da goikoa. Ezkerrean eta behean, ospakizunetako une ezberdinak ikus daitezke





- Instalazio elektrikoak
- Etxetresna elektrikoaren konponketak

Jose Moyua kalea 16, behea • Tel./Fax: 943 78 23 10
Mug. 615 74 94 94 • 20560 OÑATI



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA | TEL/ FAXA: 943 78 14 59
20560 OÑATI (GIPIZKOA) | limabar@euskaltel.net

www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba

943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop





240. zkiā. | Kontzejupetik | 37

Antxiñako fotografixak

Garibaiko torria gerra aurretik



San Pedruak be badatozela-ta, Torreauzoko argazki zaharra dakartzuegu hillabete honetan. Bi bertsioetan gainera. Auzuari izena emuten xauen **Garibaiko torre** historikua da. Arantzazu / Araotz aldetik datorren **Artixa** erretoa eta Udana / Aloña-azpi inguruan sortzen dan **Ubaio** alkarketan diran urkullu-puntu horrentantxe jaso euen euren torretxia Erdi Aruan Lazarraga-Garibaiko jauntxuak, jentillak gau batian egindako zubixaren aldamenian, gure herriko ipuin klasikuetan kontaitten dan moduan.

Azuak, egiza esan, beste leku batzuetan letxe, izen bat baino gehiago euki dau gizalditan zihar: **Lazarraga** hasieran, **Torreauso** geruago eta **San Pedro** be bai sarritan, ermittiaren eraginez. Oñatiko historixan inportantzia haundixa izandako hiru liñajek dakoi jatorrixa bertan: **Lazarragak**, **Araotzek** eta **Garibaik**, trungo bereko hiru familixa nagusi, euren sortetxiak **Etxaundin**, **Elazarran** eta **Torrian** eukaiñak hurrenez hurren, gerora Oñatiko kalia eta beste herri batzuetan zabaldu baziran be.

Garibai familixa Mondraguera be fan zan eta haren ondorengo bat **Esteban Garibai Zamalloa** (1533-1599) historia-dore famaua izan zan. Kuriosua da, baiña gaur egunian **Garibai auzua** errekiak eta zubixaz bestaldekuari esaten xako; hala eta guztiz be, leku-izenak kapritxoso samarrak izaten dira batzuetan, eta Garibaiko torria eta Garibaiko errota Torreausoko baserrixak dira, ez Garibai auzokuak, antxiñagoko kontuen testigantza baten aztarrana mutuak izango balira lez.

Ba, bi fotografixok gerra aurreko Garibaiko torriaren itxuria erakusten doskue. Zaharrena ezkerrekuak emuten dau. Etxe aurreko **tejabaniak** eztako guk gerora eza-gutu gebenaren antzik; atzian ikusten dan baserrixa Garibai auzoko **Dolaetxe** izango da. Eskumakua 20-30 bat urte beranduagokua izan leike; ezkerreko estalpe horrek etxiarekin bat egitten dau eta eskumakaldian be beste tejabana bat dago, baserrixari erantsita; azkenengo hau gerra ostian bota zan, **Gumersindo Guridi** eta **Martina Egañak** euren familixiarekin batera han urte askuan euki euen auzoko tabernia jarteko. Ezkerreko estalpia, barriz, askoz geruago eretsi zan.

J.E



Ezkerreko argazkixa Oñatiko udal artxibuan gordeten da. Eskumakua María Comas Ros-ek 1936xan kaleratutako *Juan López de Lazarraga y el monasterio de Bidaurreta* izeneko liburutik atara dogu.



IKAS3

UDA 2014



INFORMATIKA

(Photoshop, Ofimatika, Tablets, ...)

MEKANOGRAFIA

(Teknika eta abiadura)

UNIBERTSITARIOAK

ERREPASO ETA LAGUNTZA KLASEAK

(matematika, fisika, euskara, lenguae, ingelesa, ...)

INGELESA (FIRST, ADVANCED, ...)



University of Cambridge
AUTHORISED CENTRE

**Matrikula
epea zabalik**

BIDEBARRIETA, 5

ikashiru@terra.com

Tf. 943783103

Izen-ematea

maiatzak 27tik ekainak 6ra

» Oñati gestio
heziketa

MGEP
Mondragon Unibertsitatea

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazio eta Finantza
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Sistema Elektroteknika eta Automatizazioak
- Automatizazio eta Robotika Industriale
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produksaren Programazioa
- Mekatronika Industriale

www.mondragon.edu/ogh

info.eoprosagutitza@mondragon.edu

943 71 00 00

www.mondragon.edu/gmh

gmh2.mgep@mondragon.edu

943 73 97 85

Lanerako
Gorte!

2014-2015



“BADAKIZU ZERGAITIK
AZTERTZENDUDAN
NIRE ENTZUMENA
GAES-EN?”

“EGUNEN BATEAN DENA ERREPIKA
DIEZADATELA SAIHESTU NAHI DUDALAKO.”



 **GAES**
Entzumen Zentroak
www.gaes.es



Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • **ARRASATE**
Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • **BERGARA**